


BILTZALLEA: A. ZAVALA S. I.

FERMIN IMAZ

BERTSO GUZIAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-399

10624

FERMIN IMAZ
BERTSO GUZIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

-24-

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala, S. J.
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta Atzerrian: 275 peseta
Ongilleak: 350 Ale bakarra: 25

**FERMIN IMAZ
BERTSO GUZIAK**

(Antonio Zavala, S. I.: bilduma ta argibideak)

AUSPOA LIBURUTEGIA

Depósito Legal S. S. 416/63

N ° de Registro S. S. 5999/62

A R K I B I D E A

FERMIN IMAZ ECHEVERRIA	9
Fermin Imaz zanaren oroitza	13
Itzaurrea	15
1908: Italia-ko lur-ikara	17
Italiyako lur-ikararen bertsuak	18
1909: Melilla-ko gerra	27
Bertso Berriak: "Ezin egon naiz ezer — esan gabetandik"	28
1909: Mayatzeko galerna	32
Galernaren bertsoak	36
1910: Estropada	41
Estropadako bertsoak	42
1912: Abustuko galerna	45
Kantabria-ko itxas-gizonai oroipen bat ...	49
1913: Donostia erre zuteneko eun urteko mu- ga	58
Bertso Berriak Fermin Imaz-ek zentenayuan gañian jarriyak	60
1914-1918: Bertso Berriyak Fermin Imaz-ek jarriyak: "Desiatua negon asteko..."	73
1915: Prat eta Ubarrechena-ren korrika- apustua	82
Bertso Berriak: "Ilbeltzaren oi ta lauan — Donosti aldian ..."	84
1924: Zegama-ko Eriotza	93

Bertso Berriyak: Fermin Imaz-ek jarriyak: "Bertso batzuek ateratzeko — enkargua det emana..."	94
Bertso Berriyak Fermin Donostiarrak jarri- yak: "Gaude milla ta beatzi eun..."	102
Bertso Berriyak Fermin Imaz Donostiarrak ja- rriyak: "Bizi gerancai esplikaziyo — on bat nai det egitia..."	108
Fermin Imaz-ek bere buruari: "Bertsuak ja- rritzeko — etorri zait era..."	115
1927: FERMIN IMAZ ETA TXIRRITAREN SESIOA:	
Sesioa	125
Bertso Berriyak: "Bertsuak jarri ditut — me- rezi bezela..."	127
Bertso Berriak Txirritak jarriak: Fermin Imaz deitzen dan — binoteru orri..."	135
Bertso Berriyak: "Desprezio bat egin — di- raten meriyo..."	142
Bertso Berriak Txirritak jarriak: "Bigarren txandan Fermiñek kankak — ni mendra- tzeko pozian..."	151
Bertso Berriyak: Fermin Imazek Txirritari ja- rriyak: "Txirrita, eztezu eskola ederra — oso ikasi gazterik..."	156

FERMIN IMAZ ECHEVERRIA

Donostian jayo zan, 1879-ngo Ibeltzaren 27-an, arratsaldeko bostetan, San Martin kalean, 38 zenbakian, beko bizitzan.

Gurasoak zituan: Jose Franzisko ,Alegikoa, ta Maria Felipa, Tolosarra.

Aitaren aldeko alton-amonak: Andres, Ataundarra, ta Juana Sánchez, Alegikoa. Amaren aldekoak: Migel Tomas, Amezketa-rra, ta Martina Ezquiaga, Alza-koa.

Santa Marian batayatu zuten biaramonean, ta Juan Fermin jarri zioten izena. Bañan bere denbora guzian etzuan Fermin besterik erabili.

Aitapontekoa ere Fermin zuan, Fermin Echeverría, Naparroako Arano-koa. Amapontekoa ere, naparra: Matilde Larregui, Aoiz-koa (1).

Santa Mariko paperetan arreba bat baka-rrik agertzen zayo: Bizenta; anayarik bat ere ez.

Gizon lodi xamarra omen zan, zabala, sendoa ta arpegi ederrekoa.

(1) Ikusi Santa Mariko ta Juzgadoko pape-
rak.

Erlotzaren paper-ageriak argiña zala dio, bañan ezagutu zutenak mariñel ibiltzen zala esaten dute: arrantzale itxasoan; eta bolara etzanean, ikatzaren eta olakoen "karga-deskargan" Donostiko kayan.

Taberna ere izan omen zuan.

Bertsoak paperean jarri ta erriz erri saltzen maiz ibiltzen omen zan. Bertsoak jartze-ko yayoa omen zan oso, doai berezia omen zuan ortan. Ori da danak ao batez esan digutena ta irakurleak liburu ontatik juzgatu bear duana.

Kantatzeko berriz eztarri aparta omen zuan, oso ederra boza. Lasai ta patxaraz kantatzen omen zuan, itzak garbi ta poliki bo-teaz. Napar jotak ere berdin kantatzen omen zituan. Orren eztarri bizkorra zuan. Itz batean esateko, bertso kantatzeko gutxi ikusi diran bezelakoa.

Aotik aora ere botatzen omen zituan, sagardotegian batez ere. Erariakin piska bat berotutakoan, orduan-ta obeto aritzen zan. Txirritak, berriz, aldrebesko zera omen zuan: erandakoan motteldu egiten zan bertso-tarako. Askotan jarduten omen zan, besterik ezin ta ukalondoak mayean jarri, bi eskuakin burua artu ta ixildu gabe bertsoa bota ta pota.

Esan bearrik ez, sagardotegian eta parrandan gustatzen zitzayona zala.

Juana Otegui-rekin ezkondu zan, bañan etzuten familiarik izan.

Il zanean etxea zuan "Calle de la Salud" deritzayonean, Amara-ko estazioaren atzean, bigarren zenbakian, irugarren bizitzan.

Erriko hospitalean il zan, "neumoniaz", 1929-ngo Ilbeltzaren 8-an, 50 urte osatu gabe (2).

(2) Argibide auek eman dizkigutenak: Antoino Pagola, Ernani, Pello Zabaleta ta Juan Maria Lujambio, Errenterikoak, ta Donostiko kayeko Inazio Carril, Inazio Aizpuru, Martin Zabaleta ta beste zenbait gizon zar.

FERMIN IMAZ ZANAREN OROITZA

Ni gaztea ta bera sasoiko ezagutu nuen Lasarte-n; bertara joera aundia zuan naiz-ta bertakoa ez izan.

Lasarte barriyo txiki bat zan orduan: bi ola edo fabrika ziran, bat telleria ta bestea kokua, bietan 100 bat langille, ta guzira 1.000 bat biztanle.

Fermin Imaz ori astean iru lau bat aldiz etortzen zan bere emaztearekin arrai saltzera, zaldi koxkor bat karruakin eta senar-emazteak karruan zirala. Korneta batekin tutu jotzen zuten.

Adieraziaz zer arrai zekarkiten, beti iztun ta alai Fermin ori. Emaztea, musu gorri polit bat zuan. Apenas ondorengorik zuten, seme alabarik esan nai nuke.

Arraiz gañera, berak ateratako bertsoak ere saltzen zituan. Gaur min det paper bat bakarrik ez jaso.

Geyenetan, Txirritarekin erriko jaletara deitua izaten zan, Gaztelurekin ta Frantzes Txdkiyarekin ere bai.

Lasarte-n, garaya aitan, iru sagardotegi geyenetan zabalik izaten ziran. Esan bearrik

ez dago, gure Fermin, arrai saltze ondoren, an izango zala upelaren ondoan; baita gure patrikan pezta bat bazan ere, bera gonblatu, ura pozez bertsoan ta gu, berriz, pozikago berari entzuten.

Ta bitartean, andre gaxoa karruaren gainean zai, gizona noiz aterako.

Sagardo ona bazan, jende geiago ere etortzen zan, ta askotan illundu arte bertan.

Oso gizon atsegiña ta iztun egokia zan. Oraindik begietan daukat: mozketa xamarra, lodikotea, bibote beltz zerratu edo bizar oso itxia zuen.

Ori emen lau bat urtetan ezagutu nuan, 1916-tik asi ta 1920 alde bitarte gutxi gora bera.

Eta bukatzeko, batean nik zaldiagatik zer galdetu ta nola erantzun zidan:

—Fermin, a zer moduzko aberia!

—Beiratu akiozu, ortxe ageri'a!

Goiko Aitak bere ondoan dezala Fermin Imaz.

Miguel Zuaznabar, Sasueta, Lasarte.

ITZ - AURREA

Fermin Imaz-en bertsoak andik eta emendik bilduak ditugu. Arek erriz-erri sakabanutu zuana, gu ere erriz-erri biltzen sayatu gera.

Esan bearrik ez, izena paperean jarri etzualako edo guk papera arkitu ez degulako, gaur liburu ontan agertzen diran baño bertso-paper geyago aterako zuala arek.

Bildutakoak, jarritako urteari dagokionez jarri ditugu liburu ontan zarrenetik asita.

Orrela, amar bertso-paper dijoaz aurretik. Urrena, urterik markatu gabe dauden beste bi bertso-paper. Ta azkenean, Fermin ta Txirrita asarretu ziraneko bertsoak, beste bost bertso-paper. Ain zuzen ere, Ferminen azkeneko urteetan gertatu zan sesio ori.

ITALIA-KO LUR-IKARA

1908-garren urteko Abenduaren 28-an, lur-ikara izugarri bat gertatu zan Italian, Mesina-ko itxas-atean alkarri begira dau-den Calabria ta Sicilia ugarteko bi itxas-bazterretan.

Goizeko bostak eta ogeyea gertatu zan, jende guzia gozo-gozo lotan zegoala.

Mesina-ko erriak lur jo zuan ta etxeak 70.000 edo 80.000 bat lagun arrapatu zituzten azpian. Ta sutan asi ziran bereala zenbait etxe.

Elbarritu gabe gelditu ziranak kai alde-ra jo zuten, bañan au ere purrukatuta zegoan.

Etzan gelditu ez telegraforik, ez trenik, ta ez abixua emateko batere beste modurik. Orregatik, andik amabi bat ordura jaso zuan Italia-ko Gobernuak gertatu zanaren berri.

Albait laisterren asi ziran laguntzera bialtzen: soldaduak, baforeak, Gurutze-Gorrikoak, ta abar. Bañan ürrengo goizera arte etzan esateko diñ ezer allegatu. Ta lenengo egunetan ere bear aña ez beintzat.

Etxeak azpian arrapatutakoetatik oso gutxi atera ziran bizirik. Soldaduak zenbait zulo aundi egin ta an sartzen zituzten gorputzak pillaka, danak batera.

Ori da Fermin Imaz-ek bertsoak jarri zizkion lur-ikara.

ITALIYAKO LUR-IKARAREN BERTSUAK

1/ Biyotzetikan eskatzen diyot,
nere Jaungoiko santua,
konbeni bada argitu bezat
dedan entendimentua,
bertso batzuek ateratzeko
artu det pentsamentua,
gusto duenak jakin dezala
Italiyako kontua.

2/ Milla bederatzi egun eta
zortzigarrego urtian,
terremotuak izandu dira
Italiyako partian,
nola baitiran gauza tristiak
pentsatzen jarri gaitian,
gutxiyeneko berregun milla
geratu dira lurpian.

3/ Oriyek dira deskalabruak
Mesina-n izan dirana;
akordatuta badakizute
pena artutzen derana,
aur koitaruak negarrez berriz
faltarik aita ta ama,
nola eztegu errukirikan
izango oriyengana?

4/ Famili asko izango dira
artutakuak umetzat,
berak egiña balu bezela
alaba edo semetzat,
nayago nuke neronek ere
bat baldin banuke neetzat,
biyotzetikan artzia maite
obia dala deritzat.

5/ Erregiñak aur txiki baten
negar-soñua sentitu,
nola dan bera familikua
omen zitzayon kupitu,
posible etzala ala uztia
da laguntzera abitu,
medallak eta gauza geyago
oraindik merezi ditu.

6/ Trantze artatik libratu eta
artu zunian besuan,
iru-lau musu eman zizkiyon
bere kariño osuan,
erdi negarrez zeguelako
paraje peligrasuan,
oinbeste nola egingo ziyon
maite izan ezpazuan?

7/ Amairu segunduan zirala
oinbeste anima akabo,
Jainkuak daki nola libratu
egingo zituzten gero,
alako lanik pasako zanik
iñork etzuen espero,
penagarritzko kontuak dira
pentsatzen jarri ezkeru.

8/ Naziyo orri kastigu asko
emanik dauzka bolkanak,
oraindik oso gutxi fiyatu
oinbeste indar daukanak,
lur azpitikan atera eziñik
an izandu diran lanak,
zer kontatua edukiko du
bizirik geratu danak.

- 9/ Lenago txarra izandu dana
gerta liteke ondua,
oraingo ontan lenago ezik
puska ederra du kendua,
Jaungoikuaren kastigu batez
izango zan agindua,
modu orretan baldin baguaz
laister akabo mundua.
- 10/ Istillu txarra jakiña zegon
ori pasatu zanian,
asko lotan da beste batzuek
ariko ziran lanian,
orra okerrak nundik datozen
usterik gutxiyenian,
onuzkero orrek ala biarko du
Jainkuaren izenian.
- 11/ Paperetikan jakindu nuen
nola baitzegon jarriya,
dana galdua dala Mesina
deritzen zayon erriya,
asko galduta bestiak berriz
ezin bizirik larriya,
uste det ori izango dala
egun gogoangarriya.

12/ Ori pentsatzen jarri ta malkoz
betetzen zaizkit begiyak,
sinistatutzen ditut nik danak
zergatik diran egiyak,
bai emen dira beti su ta gar
egoten diran mendiyak,
bestela nola pasa litezke
orren desgrazi aundiyak?

13/ Oyen guziyen errege jaunak
aitu zunian gauz ori,
berebiziko negar-malkuak
omen zitzaizkan ixuri,
ziertorikan eztakit baño
gauzak alaxen diruri,
bildurrak gaude orrelakon bat
pasako ote zagun guri.

14/ Bolkan gaiztoak nere ustian
izan biar du indarra,
bere reinuan utzi du beintzat
beti betiko negarra;
eriyak berriz min dutelako
egiten dute diarra,
tristia ez al da kulparik gabe
penatzen egon biarra?

15/ Emengotarrak ondo dakigu
zer diran ango kasuak,
ezin dunari lagundutzeko
zabaldu'izkagun besuak
Fermin Imaz-ek atera ditu
konbeni diran bertsuak
gogongarritzat artu ditzaten
letzen daudela batzuak.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. R. Altuna. — San
Sebastián". (Manuel Urreta zana, Tolosa).

MELILLA-KO GERRA

1909-garren urteko Uztaillaren 9-an, Melilla-tik zazpi kilometrora, mina-gizon batzuek lanean asiak ziran edo asteko prest zeuden, beste egunetan bezela, lasai asko.

Urte betea zan andik burnia ateratzen asia zala "Compañía Española de Minas del Rif" zeritzayona.

Goiz artan, ordea, moroak izkutatu ta zelatan zeuden lan-tokiaren inguruan, ta bat-batetan tiroka asi ziran. Sei langille il ta bat eritu egin zuten.

Berealakoan etorri ziran soldaduak, Marina jenerala buru zutela. Etzegoan Melilla-n soldadu askorik, ta naiko lan izandu zuten egun ayetan moroen erasoai eusten. Oso burruka gogorrak izan ziran.

Baŕian 27-an izugarria gertatu zan: Gurugú mendiaren egaletan bazan "Barranco del Lobo" zeritzayona. Moroak antxen il zituzten Pinto jenerala ta beste host buruzari, ta soldaduetatik 150 il ta 525 eritu.

Zer esanik ez, zefien mingarriak izango ziran berri oyek Españian. Baita ere Fermin Imaz-entzat.

Bitartean gobernuak 30.000 bat gizon prestatu ta Melilla-ra bialdu zituan, Arizón jenerala buru zutela.

Abuztuaren azkenetan, allegatu bezin laister, eraso zieten moroai. Orduntxe eldu zituzayen auei "esti atzera" egiteko txanda Etzegoan lengo konturik.

Soldaduak "Barranco del Lobo" dalako ortara iritxi ziranean, oraindik ere lur-azalean zeuden Uztaillaren 27-an toki artan ildakoen gorputzak.

Andik laister amor eman bearra izan zuten moroak.

Ori izan zan Melilla-ko gerra, Fermin Imaz-ek bertsoak atera zizkiona, gerra laburra bañan bai garratza ta tristea sobra ere, gerra guziak diran bezela.

Il, eritu edo elbarritu, iya 3 000 gizon galdu zituzten espagnolak. Moroenak zenbat izan ziran ez dakigu.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Ezin egon naiz ezer
egin gabetandik,
bertso bi paratzia
goguak eman dit,
Jaungoiko zerukuak
lagundutzen badit,
nik aren esperantza
dadukat oraindik.

- 2/ Cuba-kua pasa ta
Melilla-n urrena,
iñork ezagutu dun
gerrik okerrena,
makiñatxo bat negar
gutzat dakarrena,
ezta lasai egongo
zenbaiten barrena.

- 3/ Amak azi dituzten
semetxo ederrak,
erdiyak galdu ditu
Melilla-ko gerrak,
Jaungoikoari eskatzen
dizkiyot eskerrak,
zuzendu al balitza
pasa'iran okerrak.

- 4/ Nola ez gera egongo
gu tristuran denak,
pake gozo batian
biar gendukenak?
guraso asko dira
negarrez daudenak,
semiak gerran ilda
galdutako penak.
- 5/ Makina bat badira
emendikan joanak,
ez gizajoak beren gustoz,
bestek eramanak,
penatzeko ainbat badute
aitak eta amak,
zergatik diran neketan
azitzen diranak.
- 6/ Txarra dala diyote
ango terrajia,
kristauak ondatzeko
ai zer parajia,
zenbatek ote dauka
biziya lajia?
aruntz juateko zeñek
dauka korajia?

7/ Eztakit gerra ori
nola dan asiya,
guretzat beintzat bada
naiko desgraziya,
au da munduko alkar
ezin-ikusiya,
amaika amaren semek
utzi du biziya.

8/ Pasadizo guziyak
jarri ezkeron nik,
bat ezta negarrikan
egingo ez lukenik,
egon izandu gera
alkarri esanik,
gerrak eztakarrela
bepiere gauz onik.

9/ Pakian nai genduke
danok utzitzia,
ez al da bestela're
naiko sufritzia?
eztu asko baliyo
semiak azitzia,
ezta posible onla
ondo bizitzia.

- 10/ Zer kulpa degu orla
biziya kentzeko?
semiak azi eta
denak bestentzako,
ariyek biar dira
berriz laguntzeko,
ori da alibiyua
gurasuentzako.
- 11/ Moro oyek eztakit
zer pentsatzen duten,
kostako zaye gerr'au
españolai jaten,
danok asiko gera
autsi edo eten,
ikaratzen geranik
esan eztezaten.
- 12/ Burla gutxi egingo
digute moruak,
oyek bezela gu're
gera gerreruak,
ematen dizkigute
naiko endreruak,
animik eztaukaten
gaizto borraruak.

13/ Luziak izan arren
oyek atzaparrak,
probatuko ditugu
badira azkarrak,
zer dirala uste dute
español kaiskarrak?
ango lau bentzutze'itu
emengo bakarrak.

14/ Kasta ori probatu
duenak deritza
juiziyuan sartutzen
dala oso gaitza,
eztitezela gero
geyegiyan mintza,
asentatuko dira
arro badabiltza.

15/ Izugarriyak dira
oyen diadarrak,
eztitu ikaratzen
suak eta garrak,
guraso askori eman
dizkaten negarrak,
ajolikan gabeko
animali zarrak.

16/ Ez dira arrazoyak
txorakerizkuak,
ezpadegu penik artzen
gera arrizkuak,
Fermifiek jarri ditu
bertso egizkuak,
pasa'iralako gauzak
negargarrizkuak.

IKUSI: Bertso-papera: "Reimpreso. — Imp. de Pozo". (Jose Antonio Berrondo. Erdiko-etxe, Errenteri).

"Bertsolariya", n.º 9, 1931'ko Azaroaren 15'an: 5, 9 ta 12'garren bertsoa falta ditu. 2/1: Milla beatziegun da — bederatzigarrena / nere goguan dedan — urterik txarrena; 6/5: pakia nai duntzat — modu itxusiya.

MAYATZEKO GALERNA

Garai artan bazan Gipuzkoan apaiz bat, Orcolaga jauna, Ernani-ko semea ta Zaurantz-en erretore izana, egualdiaren goraberrak aurretik somatzen izugarri abilla.

Orcolaga onek, 1909 urteko Mayatzaren 24-an, arratsaldeko iru t'erdietan abixu au bota zuan Igeldo-tik: "*La situación va a perturbarse. Téngase cuidado con la galerna.*" Baita ala gertatu ere.

Urte-bolara artan antxoara zebiltzan arrantzaleak. Batel aundi batean lau-bost bat lagun arratsaldean berandu xamar irten, gaulenean asi ta goizera arte arrantzan. Onela egunero.

Galerna, arratseko bederatzi t'erdietan sortu zan ta orregatik unerik txarrean arrapatu zituan arrantzaleak, alegia ustez-ustegabeen sareak zabaltzen ari ziran.

Sareak arrapastaka bildu, edo besterik ezin da bertan utzi, ta legor aldera il edo bizi abiatu ziran, tantayan bela txikia besterik etzutela.

Alakoetan oi dutenez, Getari-ra jo zuten arrantzale askok. Kai ontan 150 txalupa (80 Ondarro-koak ta gañerakoak Lekeitio ta Motriko-koak) ta 30 bapore sartu ziran. Kaya artean aunditu gabe zegoan; ta, esate baterako, alkarren gainka jarri bear izan zituzten txalupak, danak sartuko baziran.

Zigorrik gogorrena Ondarroako erriak ar tu zuan. Erri ontan 6.000 arrua bañon geyago sartuak ziran zenbait egunetan, eta mariñel guziak itxasoan ziran. Guztira, erri ontako 13 mariñel galdu ziran:

Ebaristo ta Jose Domingo Garramiola aita-semeak, Enrique Badiolaurreta, Feliziano Egurrola, Santiago Badiola, Jose Manuel Imaz, Joakin Alcorta, Polikarpo Motrico, Domingo Urquiri, Juan Andres Berri di, Eustakio Illoro, Lukas Urresti ta Ruperto Olano.

Jose Manuel Imaz ori bertsolaria zan ta periodikuak onela dio: "*José Manuel Imaz, soltero, de 32 años, versolari; deja madre viuda.*" Esan genezake erriak pena geyago artzen zuala bertsolaria galdua, ta ezin utzi izan zuala ura bertsolaria zala periodistari esan gabe.

Imaz orrek onela dio bere bertso-paper batean:

Guretzako mundua
txit dago laburra,
guztiok badakigu
il biar deguna,
noiz da nola eztakigu
badator eguna...

Iñola ere egia zion gizajo arek.

Orio-n bi galdu ziran: Jose Inazio Beratarvide, Alza-koa, ta Antonio Illarramendi, amaika urteko mutilla. Periodikuak onela kontatzen du auen galera:

“San Antonio” txalupan lau lagun zijoazen: Jose Antonio ta Juan Jose Manterola aita-semeak ta beste bi oyek.

Galernak txalupa irauli ta ito egin omen ziran Beratarvide ta amaika urteko Illarramendi ori. Aita-semeak, berriz, igeri legorrera atera ziran, Gasterreneka zeritzayon tokira.

Jose Antonio Manterolak illoba omen zuan Illarramendi mutil koxkor ori, ta ura salbatzen berebiziko egiñalak egin omen zituan;

bañan besoetan zuala olatu batek kendu ta eraman egin omen zion ta onela ito zan.

Periodikua ez dator bat Donostiko mariñel zarrak diotenakin. Auek onela kontatzen dute:

Iru lagun omen ziran batelean. Galerna sortu ta beren buruaz etsi zutenean, batek mutil koxkor ori bizkarrean artu ta igeri abiatu ziran. Etzeuden nunbait arkaitzetatik urruti. Alare gisa ortan ezin allegatuko zirala ikusi zuten.

Orduan buelta eman ta mutilla txalupari lotu zioten, legorrera iritxi ta baporean mutillaren billa etortzeko asmoz noski.

Ekin zioten herriz ere igeri ta "Itxaspe" deritzayon baserriaren parean atera ziran legorrera. Oriora etorri, mutilla zer modutan utzia zuten esan ta bapore batean areu billa abiatu ziran.

Zijoazela, onela galdetzen zieten:

—Nun utzi dezute?

Ta besoari eragiñaz ala omen zioten:

—Or laga degu.

Bañan ez omen zuten ez mutillaren ta ez txaluparen aztarrenik ere arkitu. Seguru asko, galernak txalupa bultzatu ta arkaitzetan txikitu ta txeetuko zuan.

Pentsatzen jarrita ere etzan oso gozoa izango mutil koxkor aren munduko errematea, itxaso amorratuaren mendean, gau illunean, batelari lotuta, bakar-bakarrik...

Irakurle bakoitzak pentsatu bearko du zeñi sinistuko dion: periodikuari ala Donostiko mariñelai.

Fermin Imaz-ek galerna ontaz atera zuan bertso-papera ez degu iñon ere arkitu. Donostiko mariñelai zor dizkiegu emen dioazzen bertsoak (3).

GALERNAREN BERTSOAK

- 1/ Mayatzaren ogei ta
laugarren arratsian,
galerna bat sartu zan
modu zorrotzian,
urrengo egunian
kontu txarrak zian,
txaluparen granorik
etzala etxian,
zer pena izango zan
askon biyotzian.

(3) Argibide auen emalleak: "El Pueblo Vasco" ta "La Voz de Guipúzcoa" periodikuak eta Donostiko mariñel zarrak: Inazio Carril, Inazio Aizpuru.

2/ Ondarrua da asko
kastigatu dana,
fameli orietan
bada naiko lana,
zierto badakit gaizki
egongo dirana.
anparatu nitezke,
jaunak, al derana,
askok bezela banu
nundikan emana.

3/ Itxaso sagradua
dalako meriyo,
makiña batei negar
egiñazten diyo,
berriz ere ezin izan
gindezke ba fiyo,
alperrik astia da
orren kontrariyo,
ito diranak ez dute
jan bearrik geyo.

4/ Salbatuko etzuela
zutenian etsi,
txalupari lotuta
omen zioen utzi,

.....
.....
.....
.....
.....
.....

5/ Gorputzak egiñik ura
utzirikan ala,
igari abiyatu
ziran beriala,
batek bidian ziyon
ezin zeikiala
alperrik zala orduko
aren egiñala,
pentsa zagun ortatik
penatu dirala.

6/ Baporía artuta
ziranian erten,
beste lagun guziak
galdetzen zioten
utzitako korputza
ia aber nun zuten,
besua luzatuta
ziyon erantzuten,
sayatu ziran bañan
billatu etzuten.

7/ Arrantzalia dabil
peligro aundiyan,
ardiyak otsuakin
bezela mendiyan,
ezer ez dute izan
joan dan aspaldiyan,
gogorra pasatu da
oraingo aldiyan,
artzeko modukuak
dira memoriyan.

8/ Arrantzale maitiak,
umildu gaitian,
beti ibilli gabe
desgrazi tartian,
errespeta dezagun
guziok batian

.....

.....

Zarauzko bikayua
bizi dan artian.

ESTROPADA

1910-garren urtearen inguruan bazan Orio-n izengoitiz “Aundiya” edo “Oriyoko Aundiya” esaten zioten gizon sendo bikain bat, itxasoan “maquinista” ibiltzen zana. Orio-n garai artan zan arraunlaririk onena.

Onek apustua egin zuan Ayete aldeko bi baserritarren kontra, Orioko barratik Donostiraño (6 milla), arrauketan batelean.

Baserritar oyek Pasaitar batzuekin aritu omen ziran prestatzen.

Bañan estropada asi ta “Aundiya” aurretik jarri zan. Bi minutu baño geyagoko aurrea artu zien baserritarrai. Auek indarra bai ugari, bañan trebetasunik ez. Itxura gabeko arrauketan zijoazen.

Orduan Pasayako maixu oyek albotik zijoazen baporetik, oju egin zieten:

—Motellek: zuzen joatea naikoa dezute; jarri baporearen ondoan ta segi oni lasai, bañan zuzen... zuzen...

Baita ala egin ere baserritarrak. Ta alde-

(4) Urtea gutxi gora berá jarri degu.

ratzen asi zitzayoten Oriotarrari, baita ere aurreratatu ere, ta alde aundiaz irabazi zioten.

Izan ere, onena izanagatik, bakarra, bakarra beti.

Gertaera ontaz bertsoak jarri zituan Fermiñek. Ez degu papera iñon ere arkitu. Emen dijoazen bertso pizarrak Donostiko mariñelai (5) zor dizkiegu. Baita ere orain eman ditugun argibideak.

ESTROPADAKO BERTSOAK

- 1/ Bertso batzuek ateratzeko,
jaunak, izan det asmua,
orain baño leenagotikan
artua neukan planua,
batzuentzako poztasuna da
bestientzako damua,
tokatzen ez dan arrazoyikan
publikatzera ez nua,
gure Jainkuak eman deidala
entendimentu sanua.

(5) Inazio Aizpuru, Inazio Carril...

2/ Gauzak pasatu diran bezela,
kristauak, nai ditut konta;
arraunian asi ziraden
beatzi t'erdiyak jota,
ango jendien burlak orduan
brankan gañera iyota,
esanaz: Eman akiyozute
erremolkeko txikota,
oyek emendik Donostiyara
ez dituk iritxiko ta.

3/ Oyek ez ezik bestiak ere
oituak burla egiten,
bañan ez dakit personarikan
errespetatzen dakiten,
bañan orrela oinperatzia
zer pena ematen duten,
etzuten asko pentsatzen baño
inbenzible ziran irten (6).

(6) Bertso ontan puntu fat falta da, irakurlea konturatuko dan bezela.

4/ Gizon galanta izanagatik
ez da jeniyo^z ustela,
andik onuntza olako markik
etzun egingo bestela,
bañan herriz e bikuarekin
fiyatu ez ditezela,
sei milla eta piko badaude
esaten duten bezela,
gizon bakarra probatutzeko
uste det naikua zala.

Fabian Loidi apaiz jaunak lau bertso jarri diz-
kio Orio-ko Aundiari ("ESKU-AZALAK", Colección
"Olerti", 80-garren orrialdi).

Lenengoan onela dio:

...Bi metro luze, indar biziko
zan Oribar'ko Aundia...

Irugarrenean:

...Agertu ziran indar aundiko
bi arraunlari batentzat:
Donostiako Erdozia ta
bestea Pasaiko Artzak.

Ta laugarrena oso-osorik:

Oriotikan Donostiraño
eratu zuten borroka,
Zubi-aurretik abitu ziran
arraun-indarrez orroka...
Aundi bakarrek bide erdiraño
erakutsi zien popa,
azkenik larri ontzi bikoak
irabazi zun estropa.

ABUZTUAREN GALERNA

Ontan ere, garaiz abixatu zuan Orcolaga jaunak galerna bazetorrela. Gipuzkoako mariñelak fede aundia zioten ta, geyenak beintzat itxasora gabe gelditu ziran. Orregatik, gizon gutxi galdu zan Gipuzkoan.

Bizkayan, ordea, beste konturik gertatu zan. Egun artan bertan, goizean, Bermeo-ko txalupa guziak itxasora irten ziran, iru egun barru San Roke zala ta festetara etorriko ziralara esanaz. Santa Klara eguna zalako, arrantzale asko zegoan Ondarroa-n; bestela, izugarrizko gizon-galera gertatuko zan emen ere. Gañerako kosta-errietatik ere, gizon asko zan itxasoan.

Abuztuaren 12-garren egun ori ere oso egualdi ozkarbi ederra egin zuan. Astelena zan. Bañan illunabarrean, bat-batetan iñoiz ikusi dan galernarik amorratuena sortu zan. Donostiko Zurriola-ko arkaitzetan olatuak jo, lertu ta ogei bat metro saltatzen ziran.

Mariñelak legorretik 50 ta 60 bat milla urruti zeuden galernak arrapatu zituanean.

Jo zuten legorreruntz, bañan bidean asko ta asko galdu ziran.

Galerna ontako bertsoak mariñel bat aita-tzen dute, ta orregatik ez det aren pasadizoa besterik orain emen kontatuko:

Ostegun-goizean, "Mamelena - 12" zeritzayon baporea, Donostian sartu zan, atzetik egurrezko gurutze bat ta barrenean gurutze orri elduta arkitutako arrantzale bat zekarzkiela.

Mariñel ori Juan Daniel Escurza zeritzan, ta "San Nicolás" txaluparen patroya zan, Lekeitio-koa, 39 urtekoa ta iru seme ta bi alabaren gurasoa.

Zortzi lagun ziran txalupan. Galerna sortu ta aizeak tantaya puskatu zien. Orduan, arekin ta beste egur batekin, gurutzea egin zuten, bi egurrak alkarri gogor-gogor lotuta.

Gaberdian itxasoak txalupa irauli ta ipurdiz gora jarri zuan. Zortzi lagunak azaldu ziran ur-gañera, ta gurutzeari eldu zioten.

Andik piska batera, aizeak ta olatuak ostera txalupa zutik jarri zuten. Ori ikusi ta ayetako lau txaluparuntz igeri asi ziran. Bañan ariñegi zeraman aizeak txalupa, ta, ura

ezin arrapaturik, jo zuten atzera, gurutzeari berriz ere eldu nayan. Berandu ordea. Urrutitxo zeuden. Ta orrela galdu ziran lau gizon oyek.

Urrena, tantayaren sokak beste lagun bat trabatu ta galdu zan au ere.

Beraz, zortziretatik iru bakarrik gelditu ziran: Juan Daniel ori, Felix Laca, emere-tzi urtekoa, ta Fidel Bengoechea, ogei urtekoa.

Denbora bazijoan, ta Felix ta Fidel argaltzen zijoazen. Juan Danielek onela esaten zien:

—Eutsi, motellek, eutsi!... Azalduko dek baporen bat!... Azalduko dek baporen bat!

Amabi ordu pasa zituzten onela. Astearte-eguerdia zan. Errezatu zuten, baita ere alkarri barkazioa eskatu... Alkarri betiko agur egin zioten, bere buruaz etsita. Ez ordea Juan Daniel. Onek esaten zien:

—Eutsi, motellek, eutsi!... Azalduko dek baporen bat!...

Bañan Felix Laca-k, ezin zion geyago eutsi. Utzi ta ondora joan zan.

Andik bi ordura, Fidel Bengoechea-k ere egurrari utzi zion, indarraren faltaz.

An gelditu zan Juan Daniel, bakar-baka-

rrik, itxasoaren erdian, gurutzeari elduta. Indarrik bazuan oraindik ere, bañan egarriak ta logaleak oso penatzen zuten.

Orduan bere txamarrak ahoa estali zuan. itxasoko ur gazia ez irinxteagatik. Ta tantayaren polea bat kokotzaren azpian jarri zuan. Logaleak menderatzen zuanean, polea ori jo ta miñak esnatzen zuan.

Asteartea illundu zan, gau beltz luzea igarero ere bai, ta noizbait bear ta zabaldu zan urrengo eguna, asteazkena.

Egun ontan zenbait bapore ikusi zituan. Galdutako mariñelen billa atereak ziran. Oju ta deadar egin zien egiñalean, bañan beti alperrik. Baporeak alderatu ta iges egiten zioten gizajoari, ikusi gabe.

Eldu zan herriz ere gau beltza. Igaro zan ura ere noizbait.

Ostegun-goizean bazebillen "Mamelena" bapore ori zefi laguntza emango zion. Alako batean, mariñel bati nonbaitetik oju egiten zutela iduritu zitzayon. Erne jarri, ta iduritu bezela izan ere.

An ikusi zuten gizon bat itxasoan, gurutze bati eldurik, deadarka, ta eskuakin ta buruakin siñuak egiten zituala. Txalupa bat urtara jetxi ta jaso zuten.

Eriotzarekin 56 orduan burruka gogorrean aritua zan itxasoaren mendean.

Donostiko mariñel jende guzia oso arritu zan Juan Danielen sendotasunaz ta gurutzea ain gogor ta ederki lotuaz.

Ori izan zan 1912-garrengo Abuztuaren galerna, seguru asko euskal mariñelak iñoiz izan duten egunik beltzena. 160 gizon galdu ziran beintzat.

Fermin Imaz ta Txirrita, bertsoak jarri ta erriz-erri ibilli ziran kantari, alegia Euskal-erri guziko negarra beren aoz kantatzen.

KANTABRIA-KO ITXAS-GIZONAI OROIPEN BAT

1/ Nere biyotz gaixua
eskaka ari zat,
bertso bi ipintzeko
baldin baderitzat,
Abuztuen amabiyen
sortu zan ekaitzak
egin dizkigu oso
deskalabru gaitzak,
makifia bat persona
ondatu du beintzat.

2/ Penak esplikatzero
orain naiz abiyen,
motibua dan gisan
mintzatu nadiyan,
milla bederatzireun
eta amabiyen,
gañera Abuztuko
illaren erdiyan,
desgrazi au pasa da
kosta Kantabriyan.

3/ Kulpa gabeko franko
badu eramana,
bakoitzai errezatu
Aita-gure bana,
ain da negargarriya
egin digun lana,
anparo gabe utzi
ainbeste aur ta ama,
sinisten ere gaitz da
aurten pasa dana.

4/ Abuztuko illaren
amairugarrena,
guretzat argitu dan
egunik txarrena,
izan zagun kupira
denak alkarrena,
gogoratu utsarekin
lertzen zait barrena,
au da paraderua
Kantabritarrena.

5/ Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte ederra,
erri txiki batentzat
ai ori negarra,
aurrak aita falta du
ta amak senarra,
badaukate anparo
on baten bearra.

6/ Itxasua zitzaigun
asarretzen asi,
bendabal aldetik zan
aizia nagusi,
nork bere puestuari
ezin ziyon eutsi,
danak zatitu ditu,
iñor ez du utzi,
Gipuzkuan bertatik
ez da falta gutxi.

7/ Eun da berrogei ta iru
omen dira danak,
arrantzalietaik
ondata diranak,
gure Jaungoikuari
kontua emanak,
guk egin bear degu,
bizirik geranak,
ayetzaz erregutu
biyotza duanak.

8/ "Aita San Inaziyo"
belako barkua,
amairu gizonekin
ur-pian sartua,
beraren imajiña
an zuen santua,
Habana-ko partian
dago kostatua,
tenpestade gaixtuak
jo ta puskatua.

9/ Egur biren gañian
gizon bat jarriya,
ai, zer ote zan aren
orduko larriya!
lagunak bera jun ta
estadu urriya,
ez da Donostiyara
errez etorriya,
ikusi du birian
ixtillu gorriya.

10/ Señale ibilli dala
arraixku aundiyetan,
arrai txarra besterik
ez dan tokiyetan,
illaren amabostan
goizeko seyetan
baporiak artu zun
beraren deyetan,
naikua sufritu du
paraje oyetan.

11/ Izena Daniel du
nombria Eskurtza,
jeniyo bizikua,
espiritu utsa,
ta baliatu zayo
Jaunaren laguntza,
oso maltratatua
sartu zan onuntza,
berriz egon liteke
juan gabe aruntza.

12/ Inork galdetzen badu:
gauz ori nola da?
nik erantzungo diyo:
egiyaz onla da,
inor dudan badago,
betor eskolara,
anuntziyatu zuen
orduko bolara,
graziyak milla bider,
Aita Orkolaga.

13/ Ai gure biyotzeko
Aita Orkolaga,
beraren eskutikan
ez gaitzala laga,
orain bezela zaitu
eguna ta gaba,
berriz itxaso ortan
ez gaitezen traba,
bedorren talentua
gauza biarra da.

14/ Jainkoa portatzen da
danentzat ondradu,
gaiztuarentzat igual,
ain biyotz ona du,
emanaz irabazten
degun ainbat gradu,
itxaso sagradua
ur guziyen buru,
ark ere gurutzia
errespetatu du.

15/ Jesus maitiak eman
dezala argiya,
oraingo bolara ontan
badago premiya,
eskualdunen artian
au da pikardiya,
Bermeotik galdu da
jendien erdiya,
lutoz jantziya dago
kosta Kantabriya.

16/ Ango itxas-kolpiak
ta urro-borroyak
tragatu nai zituen
mendi ta erriyak,
pasa dira desgrazi
ikaragarriyak,
orra amasei bertso
oraingo berriyak,
Fermin Imazek eta
Txirritak jarriyak.

IKUSI: Bertso papera: "Imp. Baroja. — San Sebastián". (Gertrudis Arrieta, Errenderi).

"Bertsolariya", n.º 50, 1932'ko Dagonilla'ren 28'an: 1/10: ondatu beintzat; 4/4: egun txarrena; 7/9: ayetzat; 8/6: an zuben sortuba; 10/8: borrontate onetan; 11/15: zayon.

Eskuz idatzia (Antonino Pagola, Ernani): 1/7: zizkigun; 1/10: da; 7/9: ayentzat; 12/7: anunziatua zegon; 13/7: itxaso ortan berriz.

DONOSTIA ERRE ZUTENeko EUN URTEKO MUGA

1913-garren urtean Donostia inglesak erre zuteneko eun urteko muga osatu zan, ta aren oroipengarri festak egin ziran.

Alderdi Eder-en oroigarri bat altxatu zuten, ta aren bedeinkazioa Agorrillaren aurreneko egunean izandu zan, erriko agintariak ez-ezik, erregea bera ere an zala.

Gaur egunean, Donostiar zarrak piska bat begitan artuta dauzkate Donostiar gazteak, auek "arrats izugarri" artaz duten jakifi-ez ta ajolakabetasunagatik. Egia da oroipen guziak auldu ta itzaldu egiten dituala denborak, bafian aitortu bear ere da arrats artako oroipena izugarri auldu ta itzaldu dala azkeneko urte auetan.

Lengo Donosti zarrean, arrats aren urte-muga allegatzean, gaua eldu bezin laister eliz ta komentu guzietan ill-ezkillak jotzen asten ziran. Familia guziak bildu ta errosarioa errezatzen zuten gau artan ildako animengatik. Bukatu ta zarrena kontari asten zan:

Erria pozik atera zala inglesai ongi-
-etorria ematen, bafian ustez lagun ziranak
etsayak baño askoz okerragoak gertatu zira-
la; al zutena ostutzen ta kristau guziak il-
tzen aritu zirala gau guzian; txakurrari ere
opa bear etzaizkanak egin zizkatela Donos-
tiarrai, zer esanik ez emakumeai; su eman
ziotela erri guziari; etxetik kanpora sutatik
igesi atera nai zutenak ere atzera etxe-ba-
rrenera botatzen zituztela bayonetakin; ba-
tzuk ur zikiñen bidetik igesi joan bear izan
zutela salbatuko baziran; eguna argitu arte
etzietela utzi erritik irteten, ta orduan bizi
ziran pizarrak erdi jantzirik-eta iges joan
zirala bakoitzak al zuan tokira; erriak 600
etxe bazituan ere, 36 bakarrik gelditu zira-
la zutik, alegia Gazteluaren bean zeudenak.
Gazteluan oraindik frantzesak zeudelako;
oraindik ere erria sutan zegoala Zubieta-ko
Aizpurua-n batzarra egin zala, ifñondik ere
al bazan erria atzera lengo ofñean jarri bear
zala erabakiaz.

Festa oyek zirala-ta itz-neurtu sariketa
bat izan zan. Tolosako E. Arrese-k eraman
zuan lenengo saria (250 pezeta) "Gora bio-
tza" deritzayonarekin. B. Iraola-k "Donos-
tia" zeritzayona aurkeztatu zuan. R. Inza-

garay-k "Amaren obiyan", ta J. Elizondo-k "Donosti kiskalian". Iru oyek 80-na pezeta izan zuten.

Fermin Imaz-ek ere jarri zituan bertsoak, bañan etzituan sariketa ortara bialduko. Bañan paperetan zabaldu ta erriak kantatuko zituan; alegia, beste oyek izan etzuten sarria izan zuan.

BERTSO BERRIYAK

FERMIN IMAZ

ZENTENAYUAN GAÑIAN JARRIYAK

1/ Egun bat urte igaro dira
erre zala Donostiya,
orain zerua dan bezelaxe
orduan zan egaztiya,
su ta garretan austu zana
erri bat eder askiya,
da arrezkero arriturikan
daukagu mundu guztiya,
oroitutzeko modukua da
egin ziyoten gaizkiya.

2/ Ainbesteraño ankaperatu
gure sortu-erri laztana,
Iru-txulo da naigabe ayek
danak goguan dauzkana,
zenbat aur txiki geratuko zan
ez aita eta ez ama,
beste guraso ta seniriari
eman betiko azkena,
mundua mundu dan bitartian
beñere aztuko eztana.

3/ Iñori gaitzik egin gabia
gure Donosti ederra,
tristia ez al da esku txar batek
su emanda erre bearra?
gauza orretzaz oroitzen dana
ezta munduan bakarra,
malkoz urturik gertatutzen zait
ai, nere biyotz medarra,
zeñi etzayo orla etorriko
begiyetara negarra?

4/ Ori pentsatu zuan etsaya
etzegon zentzu onian,
illa geratu biar zun bertan
pixtutzen asi zanian,
gauza gaiztuak egin zituan
kondairak dagoanian,
pake santuan ari zanantzat
jango bazuan lanian,
askorentzako ordu estua
iritxi zan azkenian.

5/ Zori gaiztoko negar artatik
ziranak sakabanatu,
berriz Agorran zortziyan ziran
Zubieta-n alkarganatu,
bertan bizi zan jende prestua
ein zuten bereganatu;
nai izan arren nik ezin ditut
merezi aña famatu,
gizagaxuak bitarte artan
etziran gutxi penatu.

6/ Ikusirikan galdua zala
Donostiyako erriya,
Aizpuru-n bertan danak ein zuten
junta ikaragarriya,
berakin an zan alkate jauna
etzan burutik urriya,
Zubieta-ko toki alaya
bera zalako jarriya,
berriz andikan giyatu ziran
egingo bazan berriya.

7/ Suak puska bat kenduagatik
jarriya dago ordaña,
Europa dana inbiriz dauka
ain da alai ta bikaña,
nere biyotzak ezin altxa du
nai izan arren dan aña,
mundu guztiyan ezta beste bat
au dagon bezin apaña,
indar aundiyak artuak dauzka
orduan erre zan baña.

8/ Erantzuera txarrik eztegu
gizon ayen aurpegira,
ondorengiak ondo izateko
gogor sayatuak dira,
orain egun urte bezela
bizirik egon balira,
biyotzak edo barrengo odolak
egingo ziyen mugira
geroztik emen egin diraden
obra oyetara begira.

9/ Miñik aundina izandu zuten
aurreneko erantsiyan,
au zan urtian milla zortzireun
eta gañera zortziyan,
Napoleon-en ejerzitua
sartu zala Donostiyan,
ondo zegona gaizki jartzera
bere arrotasun guztiyan,
etzan izango atsegin aren
aguantiaren azpiyan.

10/ Zeukan gerrari jendiarekin
beterikan dierriya,
sei bat urtian bere mendian
eduki omen zun iya,
baña emengo ume leyalak
etzeukan lotan begiya,
bitarte ontan bazekin ondo
nola jan zuan ogiya,
aguro utzi-azi ziyoten
agindu nai zun tokiya.

11/ Abuztuaren oi ta amaikeko
goizeko kañonazuak
iruditzen zait etziradela
izango oso gozuak,
erri guztiya puskatzerario
beraren dardarizuak,
ayek ikarak eta negarrak
senire ta gurasuak,
ariyek asko ikusitzeko
jyauak ziran gaxuak.

12/ Portugesa ta inglesa ziran
Portugesa ta inglesa ziran
gurekin aliatuak,
zori gaiztoko frantzesarekin
galanki peliatuak,
beregatanu zituzten azkar
lenago guri artuak,
bañan gerora baztar guziyak
ziraden sakiatuak,
orduan emen batzuk baziran
ederki baliatuak.

13/ Gure Españiyak edo patriak
Gure Españiyak edo patriak
laguntza zuen eskatu,
inglesa eta Portugalkua
egin zitzaizkan prestatu,
bañan oriyaen aziyo asko
etziran emen gustatu,
etxiak erre, aurrak kixkali,
andriak desonestatu,
inozentian odolik asko
etzuten errespetatu.

14/ Kristabak ala derrigortzia
zer pena ematen diten,
nola ez liteke gauz oriyekin
begitik txinpartak irten?
ai, neri oroitu bakoitzian
barrenak dit irakiten,
gure amarenak giñadenikan
oriyek ez al zekiten?
salbajerikan gaiztuenak
eztu orlakorik egiten.

15/ Donosti leyal maitagarriyan
zer lanak egin dituzten,
salbaje ayek ezertan ere
errukirikan etzuten;
ai, odol txarrak eztu beñere
iñola pakian uzten,
nai zutena egin da gero
ilda igual uzten zituzten,
zentzuz nastuak zebiltzan edo
etzuten ezer ikusten.

16/ Batak bestiai lagundutzeko
bazeukan jende presturik,
beste gizaldi batzuetan
eztago ori azturik,
gu gaztiak gerade baña
daukagu ezagaturik,
nola odolak jartzen diraden
elkarrengana suturik,
gerra dabillen tokiyan ezta
beñere pake santurik.

17/ Napoleon-ek desiatzen zun
mundu guzin nagusiya,
orreatatik zan Españiyari
gerra ematen asiya,
kulpa aundi gabe makifia bati
kendu ziyona biziya,
emengua're usteko zuan
zeukala irabaziya,
sayatu arren etzuan egin
berak nai zuan guziya.

18/ Bonaparte-k zun beste anaya're,
ark ere nai buruzari,
negarra franko jarri zutenak
beiratu gabe ezeri,
erruki gabe biziya kendu
asko anima gaxori,
bi gizon gaizto diran mediyo
ainbeste odol ixuri,
gaur bizi danak eztu esango
ondo dagonik gauz ori.

19/ Gure dierriyai nundikan eldu
pentsatu zuan poliki
oni pakian utzitzerikan
etzerizkiyon egoki,
tropak jarrita nai zuena zan
bazar guziyak ebaki,
bañan emengo jendiak ere
begiya erne eduki,
beregatanu nai zuan baña
aspertu zuten ederki.

20/ Odolarekin utzi zituan
bazar guziyak betiak,
jakin nai nuke ordun lurrera
zenbat ziraden botiak,
arrigarriyak dirade emen
egin zituan kaltiak,
etzun baliyo ayen aurrera
ikaratuta juatiak,
larrutik ondo pagatu zuten
amaren seme maitiak.

21/ Bere tokiyan geldi egon balitz
etzan izango okerrik,
ez al da pena ixuritzia
ainbeste odol alperrik?
gaitz aundi gabe illak baziran
amaren seme ederrik,
orain bezela etzan faltako
gurasuantzat negarrik,
besterik etzun iñork erruki,
bere burua bakarrik.

22/ Gizon azkarra izanagatik
etzuan egin bererik,
bañan bai utzi guraso asko
poztasun aundi gaberik;
usteko zuan lur eder onek
etzula izango jaberik,
Españi ontan etzan komeni
ark nai zukian legerik,
nik esaten det, zer da munduan
pakia bezin oberik?

23/ Beste iflori eztiyot, jaunak,
frantzesai ainbat errabi,
au adierazten diyot gañera
gure euskalduntarrari,
guk ere eutsi nai diyogunak
al bada lege zarrari,
ez odolikan ixuri-azi
gaitzik gabeko aurrari,
pake santuan bizi gaitezen
utzi alde bat gerrari.

24/ Errespetatzen ditut, Elizak
agintzen duen moduan,
beren alegin guziya eginda
il ziradenak orduan,
gure Jainkua izan dedilla
anima ayen karguan,
guk erregutu deyegun gogoz
gerta ditezen zeruan,
ori egin gabe sosegurikan
eztago nere barruan.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. Argandoña H."
(Gregorio Mugica zanaren bertso-bilduma, Do-
nosti).

1914 - 1918

Danok dakiguna, 1914 urtean Europa gu-
zia gerran asi zan. Ta Fermin Imaz-ek ber-
tso auek jarri zizkan gerra negargarri ari.

BERTSO BERRIYAK

FERMIN IMAZ-EK JARRIYAK

1/ Desiatua negon asteko
bertso batzuak jarritzen,
nai-ta're ixilik egoterikan
barrenak etzun agintzen,
len biyotz bero dunai odolak
aguro zaizka mugitzen,
mundu guziyan gerra-kontua
bestarik ezta aditzen,
zenbat aur gaixo aitarik gabe
ote dirade gelditzen.

2/ Aur koitaruak ez bakarrikan,
gañera ainbeste ama,
pauso bakoitzan gogoratuaz
beren senarrarengana,
laguntza nai ta laguntzarik ez,
gaxuak daukaten lana,
sinistatzen det gauz ori oso
tristia izango dana,
oitzaz erruki liteke bate
sentimenturik duana.

3/ Negarrez eta destitxan dabil
Europako partia,
ondo goguan izango dana
ori asi zan urtia,
Ondarra baña ugariyago
bada jendia botia,
berak zanpatzen duten lurra're
illez odolez betia,
jakin nai nuke nola izan dan
askoren errematia.

4/ Gerr'au pasatzen dala diyote
lengo guziyen markatik,
zarragokuak esaten dute,
akordatzen naiz artatik,
zer penosua izan biar dun
beira egoteko bertatik,
al balitz libre nai genduke guk
orlako negar tartetik,
Jaun Zerukua, gorde gaitzazu
zuriak geran partetik.

5/ Europako gerra gaiztua
sortua zori gaitzian,
akabatuko dala uste det
gizon geyenak aitzian,
biyotz guziya erdibitzen zait
ori pentsatzen jartzian,
inozentiak aurrera bota,
kulpa dutenak atzian,
goiko Juezak astinduko'itu
bere eskutik artzian.

6/ Amar milloitik pasa omen dira
prisionero, il da eritu,
orrenbesteko pikardirikan
sekulan eztet aditu,
oyen izenak libru batian
ezin litezke kabitu,
naziyo oyei gertako zaye
jenderik gabe gelditu,
obia zuten beren tokitik
ezpaziraden mugitu.

7/ Nola itxasoko ta legorreko
aideko elementuak,
ojala danak berriz ostera
baldin baleude kenduak,
mundu guziya ikaratzen du
gaur dagon armamentuak,
a or zertaraño ekarri gaitun
gizonaren talentuak,
batek bestia iltzeko dira
oraingo adelantuak.

8/ Gizonak zenbat diraden ondo
gaizki zeudenak jarriyak,
ta ondo ziranak txit ondatuak
eriyotzaren larriyak,
nai eta nai ez izandu dira
naigabe izugarriyak,
su eman da erre edo puskatu
elizak eta erriyak,
ta orain gizonak falta, egingo
baldin badira berriyak.

9/ Odol ixurtze izugarriyak
gerr'orrek ditu ekarri,
egunetikan ogei gutxinez
geratuko'ira elbarri,
naziyo oyek zer pikardiyak
egin dizkaten alkarri,
makiñatxo bat familiyetan
negarrak dirade jarri,
mundu ontara zertako jayo
bizitzekoz penagarri?

10/ Alkarren kontra gogor dabilta
amairu amalau naziyo,
pakia eitian lengo tamafia
ostera berriz noiz iyo?
ba'ira gizonak eztaukatenak
umiak ainbat juiziyo,
bildurrak nago Españiya're
sartuko ote dan soziyo,
ez, kortian dauden gizon batzui
laguntzen baldin bazayo.

11/ Jaungoikuaren ondorengua
Aita Santua izanik,
errege oyek eztute egin nai
batere bere esanik,
zein da ori ainbat pakia egiten
sayatutzen dan gizonik?
nik eztet uste arrazoi ontan
deskuiratutzen naizenik,
baldin gauz ori logratze'ezpada
eztatorkigu gauz onik.

12/ Kristaua iltzeko elementuak
obe ziraden galazi,
etzan pasako orain pasatzen
ai dan ainbeste desgrazi,
guraso onak seme ederrak
eztitu alperrik azi,
geren bururik eztezagula
tamañ orretan ikusi,
gerr'onenian baño obia da
pake txarrenian bizi.

13/ Lanetik biar duen guziak
iñun eztagola diyo,
jateko gauzak prezizuetan
egin zaizkigu gora iyo,
pobre gaxuak sufritzen gaude
gerr'ori dala meriyo,
orreatikan ezin duenai
beti negarra dariyo,
gure munduko bizimoduak
eztu askorik baliyo.

14/ Parte gaiztuak dabiltz itxasoz
legorrez eta aidian,
oyengatik e gizonak zenbat
inozentiak il dian,
oraindikan e apenas dauden
gelditutzeko idian;
naigabe ori eztedillela
al bada sartu gurian,
Jaun Zerukua, jarri gaitzazu
pake santura bidian.

15/ Jakin dedanez jendia bada
martirizatuta illa,
indar aundiya duenak aixa
menderatzen du debilla,
artan dabillen asesinua
ezta biotzez umilla,
orlako gerrik eztegu biar
guazen pakiaren billa,
Fermiñek ala desiatzen du
lenbailen egin dedilla.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izen ga-
bekoa. (Alzalegi baserria, Berriatua): 4/9: gorde
gaguizus. (**Gorde gaitzazu** jarri degu, beste ori
Bizkaira pasatzean erantsitako aldaketa izango da-
lakoan; **Fermiñek** ez bait-zuan **gaguizus** jarriko.)

Bertso-papera: "Imprenta "La Económica", Arroca, B, bajo, (Amara)". (Joakin Gamborenea Zabala, Errenteri): 1/5: len biyotz bera; 4/8: lagun zaiguzu; 6/1: Zazpi milloitik pasiak dira; 8/1: Auskalo zenbat diraden ondo; 12/1: Urte ta erdi izango dira — gerra ori egin zala asi; 12/3: ta arrezkero pasatu da or — konta eziñ ala desgrazi; 12/8: modu orretan; 12/9: arrazoyian gelditzen danak — aterako da nagusi; ta 15'garren bertsoa falta da.

Bertso-papera: "Imp. de C. Salón". (Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Errenteri): 4/9: lagun zaiguzu; 6/1: Milloika dira or ondatuak; 6/4: beñere; 6/5: orain artian bezela aurrera — biar badute segitu; 7/9: kulpik gabiak iltzeko dira; 8/1: Izango dira gaizki zeudenak — bizimoduan jarriyak / ondo...; 8/5: señale da or pasa dirala; 9/5: naziyo oyek pikardi asko — egin dizkate alkarri; 9/7: zeñek asmatu zenbat fameli — tristezan diraden jarri; 9/9: ondo izateko etzaizkate — egun lasayak etorri; 10/2: amalauren bat naziyo; 10/5: ba'ira kristauak; 12/1: Zori gaiztoko elementuak — egin balira galazi; 12/3: etzan pasako bi urte ontan — pasa dan ainbat desgrazi; 12/5: guraso onak bere semiak; 12/7: pikaro gaizto batzuengatik — inozentiak illazi; 12/9: ez alakuak eun bizitik — grano bat eztu merezi; 14/3: oyengatikan auskalo zenbat; 14/9: Jaun Zerukuak jarri gaitzala; 15/1: Jakin dedanez asko omen da; 15/3: indar gogorra; 15/5: artan dabilen etsai gaiztuak.

Ageri danez, iru argitaraldi izan zituzten gutxienez bertso auek, Europa sutan zegoan bitartean. Nere iritzian, azken jarri degun ori izango da iru auetan lenengoa, urrena bigarren go tokian dagoena, ta bestea azkenik atera zana. Iurak ere Fermiñek berak argitaraziko zituan, bate-tik bestera aldaketak erantsiaz. Orregatik, azkeneko argitaraldiari artu diogu, Fermiñek azken pasada eman ziona ori izango dalakoan.

PRAT ETA UBARRECHENA-REN KORRIKA-APUSTUA

Fermin Imaz-ek urrengo bertso auetan aitutzen ditun korrikalariak, Pedro Prat katalana ta Domingo Ubarrechena donostiarra dira.

Garai artan, Ubarrechena ori zegoan emengo korrikalarietan txapeldun.

Bazan beste korrikalari on bat: Juan Bautista Oreja, Naparroa-ko Errazkin-goa. Oni ere irabazi zion zezen-plazan, kamioan eta apustu luzean jokatu nai ez bazion ere.

Beraz, zezen-plazan kontrariorik etzuala ta emengo apustu-zaleak asi ziran oso bero "Españiako onenari" desafioa egiten.

"Amateur" deritzayotenak etzieten kasorik ere egiten. Pedro Prat katalana zegoan orduan txapeldun Españian. Erakusten zizkaten Prat onen markak, Ubarrechenarenak bañon obeak zirala askozaz ere, bañan alperrik.

Azkenean egin zuten Prat ori ekartzeko modu.

Prat onek marka auek zituan: ordu erdian 9 kilometro ta 33 metro, ta ordu betean 17 km. ta 698 m.; Maratón deritzayona, berriz, (42 km.), bi ordu, 47 minutu ta 18 segundotan.

Donostira etorri zanean, berriz, ordu erdian 8 km. ta 160 m. egin zituan, ta ordu betean 15 km. ta 918 m. Ez marka ona iñola ere, zezen-plaza euriakin lokatzez zegoalako, bañan ala ere Domingo Ubarrechena orri kilometro bat atera zion.

Auxe da Fermin Imaz-ek bertsoak atera zizkion korrika-apustua, 1915-garren urteko Ilbeltzaren 24-an jokatu zana.

Apustu-zaleak nola geldituko ziran, zer esanik ez dago. Ala ere asi ziran Prat ori berriro ekarri nayeanean. Ta bai ekarri ere. Bañan etortzeaz etzuan egin "amateur" bategin egin bear zukeana. Ta galdu egin zuan zenbat aldiz, ez berdiñean, bentaja emanda baizik (7).

(7) Argibide auek Tolosa-ko Jose Iguaran jaunak emanak dira. Milla esker.

BERTSO BERRIYAK

1/ Ilbeltzan oi ta lauan
Donosti aldian,
korrika apustu bat
gendun igandian,
trabesa baten alde
zeguen jendian,
..... dakigu
onenak zein dian,
gutxi galduta eztakit
nola juañ dian.

2/ Kanpotikan etorri
zaigun katalanak,
aixa egin ditu
emenguan lanak,
arek eraman ditu
Donostitik famak,
oso ikaratuta
utzi gaitu danak,
toki askotan semeak
azte'ituzte amak.

1/7: Ezin irakurri paperak emen diona.

3/ Nola arek prueba ederrak
zeuzkan emanikan,
jendiak etzun uste
galduko zunikan;
eztegu nai izaten
besteren onikan,
onena dala esaten
ez degu lanikan,
eztet uste tranpiyan
ibilli danikan.

4/ Tranpiya egin bafio
nayo du ez mugitu,
emeretzitik amasei
irabazi ditu,
badauka edozeñek
ainbeste meritu,
bildur naiz katalanak
ote dun eritu,
eztute belakuan
lazuan gelditu.

5/ Domingo, txarrerako
eztizut esaten,
gizona ez da munduan
betiko izaten,
maite zaitutelako
dizut erakusten,
ez ibilli geyago
zure burua austen,
ondorengo batzuak
poltsak bete'itzaten.

6/ Txanpon franko badezu
zuk e irabaziya,
izandu zeralako
oinkari biziya;
lana egiten dunak
dauka mereziya,
nayo nuke bazendu
amak galaziya,
galdu baño lenago
osasun guziya.

7/ Katalana izango da
anka bizikua,
au're etzun billatu
oso pisukua,
biyan artian dute
marka gaitza jua,
maiz jartzen badiyote
aren gisakua,
lertu-aziko dute
mutil gizajua.

8/ Trabesik ez eiteko zan
katalana esana,
jakiñian jartzia
egin zun gauz ona,
obeto ezin portatu
liteke gizona,
bañan bazan jendia
kontra asi zana,
zer ote da juiziyo
eskasa izana!

9/ Jakinda're onen alde
zefon doblatuan,
jendia ixildu zan
asi zan orduan,
apustua du beti
zenbaitek buruan,
asko ez daki
nola sartzen duan,
zentzu gabeko franko
bagera munduan.

10/ Ogei duro amarri
bazan otsegiña,
billatu zula uste det
zeñekin egiña,
irabazi zuanak
ai zer atsegiña,
galdutatuak herriz
sabeleko miña,
amaika buru auste
ekartzen dun griña.

9/7: Ezin irakurri paperak emen diona.

11/ Zertako gera orren
buru arro dunak?
berriz e sortuko'ira
kontrako lagunak,
danantzat zabalduzen
dirade egunak,
zabarren zabarrenak
gaude euskaldunak,
juiziyuan sartzeko
premiya degunak.

12/ Katalana etorri zan
beste markatuta,
etzuan gelditu nai
oni barkatuta,
aspaldiyan zeguan
ondo armatuta
eztegu estimatu
gizon portatuta,
nai bazun juango zan
diruz kargatuta.

13/ Egizak esplikatzeke
ez da biar lotsik,
eztegu esateko
aren kontra itzik;
gogorik izan balu
egiteko gaitzik,
askok etzun izango
ipurdiko otzik,
zenbat juango ote zan
patrikatik utsik.

14/ Apustutik gauz onik
ez liteke etorri,
ondoreniak txarrak
oi ditu ekarri,
lenago zerbait duna
igual gaizki jarri;
oraindikan bagera
gabiltzanak larri,
nundikan zer kenduko
diyogun alkarri.

15/ Izan nai eztuenak
kristau dezentia,
bere buruaren gain
dakar azotia,
oyek noiznai pasatzen
diran gauzak tia,
ez det uste danikan
gezurra esatia,
bentaja txikiya da
arrua izatia.

16/ Badirade, bai, beste
asko jokalaria,
jan baño nayo'utenak
apustuan ari,
ezer eztiye opa
beren buruari,
pentsamentu gaiztuak
egíñez ugari,
danantzat ona danik
eztet uste ori.

15/6: Diran gauzak tia = diran gauzak dira.

17/ Alper asko oi dira
ortatik mantendu,
bañan betikuak e
gaizki ematen du;
bat oker ikusi arte
ez gera kontentu,
.....
ez alkarri kendu,
ai zer bentaja ori
egingo bagendu!

18/ Orra emezortzi bertso
apustuarenaK,
ontan aituko zaizkit
ditudan kemenak,
orrek ekartzen ditu
oñaze ta penak,
baita gerran jarri're
pakian daudenak,
ojala galazita
baleudezke denak.

Fermin Imaz-enak

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. Calle-
jón". (Ezin irakurri da besterik) (Imp.
Macazaga, Errenteri).

17/7: Ezin irakurri paperak emen diona.

ZEGAMA-KO ERIOTZA

1924 urteko Kandelario egun-goizean, 30 urteko baserritar bat San Juan ballaratik Zegama-ko Juzgadura etorri zan, esanaz be-yak izutu ta gurdiak azpian artuta bere aita illa zala.

Ekarri zuten gorputza. Erriko medikuak gorputz ori aztertzen asi zan ta susmo txarra artu zuan. Buruan zeuzkan zauriak etzuten ematen gurdiak egiñak ziranik. Autopsia egin ta orduan garbi agertu zan gurdiak ez baña norbaitek illa zala.

Asi zitzaizkan semeari poliki-poliki galdeerak egiten ta aitortu zuan bere okerra:

Aita ta bera asarre xamar zebiltzala alkarrekin, ta aita iltzeko asmoa artu zuala azkenean; Kandelario egun ortan aita mendira abiatu zala here bei, gurdi ta guzti; be-
ra, ordea, aurea artu ta zai-zai zegola bide bazterrean izkutatuta; aita allegatzean aizkoraren ipurdiaz iru aldiz jo ta il egin zuala; gero gurdiaren aitzeki egin nai izan zuala...

Preso artu zuten noski, bañan iñor kontu-
ratu gabe bere burua il nai izan zuan laba-
na sabeletik sartuaz.

Azpeitiko Hospitalera jaso zuten.

Andik aurrerako berririk ez dakigu (8).

1 9 2 4

BERTSO BERRIYAK

FERMIN IMAZ-EK JARRIYAK

- 1/ Bertso batzuek ateratzeko
enkargua det emana,
kontzientziyak agintzen dula
sayatuko naiz al dana,
arrigarriya izan biar du
Zegama-n gertatu dana,
ai, seme batek gurasuakin,
Jauna, egin duan lana,
gaitz ortatikan libra gaitzazu,
zeru ta lurraren Ama.

(8) "El Pueblo Vasco", "La Voz de Guipúz-
coa", 1924/II/6 ta 7.

2/ Esplikatzera abiyatu naiz
nik jakin dedan guziya,
lendabiziko eskatzen diyot
Jaungoikuari graziya,
semiak aita aizkoraz jota
or kendu diyo biziya,
odol otzian ori egiteko
etzan txantxetan asiya,
salbazyorik eztadukala
egon liteke etsiya.

3/ Eztakiyenik baldin badago
jartzen det abertentziyan,
azafia ori egin da gero
etzan gelditu etsiyan,
aita ilda berriz ipiñi zuan
erruberaren azpiyan,
bire zuzenik eztu billatzen
azitakuak gaizkiyan,
orra negarra galanta jarri
bere fameli guztiyan.

4/ Alkarri maite ziyotenikan
etzan askorik ezagun,
etsaya herriz tentaziyua
ematen gau eta egun,
gauza zuzenik ezta beñere
oyekin bagera lagun,
odolak bero dauden denboran
korputza eztago sosegun,
nere anayak, guraso zarrak
errespetatu ditzagun.

5/ Da esaten det, ai, nere itzak
arren ofenditu etzala,
komeni bada bere tokiyan
Jaunak eduki dezala,
esaten dute guraso ori
bere meriyoz il zala,
eta semiai eman diyote
pixka bateko itzala,
lenago gaizki egin bazun e
orain pagatu ditzala.

6/ Bere ondorenguantzat lotsa aundiya,
erriyak ere kaltia,
kartzelan dagon gizarajua
triste ta penaz betia,
aitak eta amak bere umia
izan biar du maitia,
gero ondoren nai baldin badu
ainduak zuzen eitia,
guraso onari tokatzen zaizkan
errespetuak oitia

7/ Bere odolako umiarentzat
ona bada gurasua,
uste det arek eamango dula
bere bizitza osua,
bañan kulpikan eztula, jartzen
baldin badiyo lazua,
andik aurrera bizimodua
ezta izango gozua,
askorentzako ortikan dator
erremateko mazua.

6/10: oitia = oik dira.

8/ Asko gurasok dituzte berriz
txarren txarreneko griñak,
denak berentzat biaituztenak
berak ta bestek egiñak,
nik orlakuai esaten diyet
eosgor buru ariñak,
orlako gauzik eztu jarritzen
Jesukristoren dotriñak,
zenbait aita ta aman biyotzak
eztira berdin berdiñak.

9/ Semia edo alaba abiyatzen da
ezkontza preparatzera,
bakoitza berai gustatzen zayon
bizimodua jartzera,
guraso askok despreziyua
egiten daki atzera,
“nik doterikan emango eztizut
ortaz ezkontzen bazera”,
orra zer moduz jartzen dituzten
beren buruak galtzera.

10/ Orren meriyoz asko dirade
juaten diranak igasi,
da ibiltzen diran tokiyan herriz
biziyo txarrak ikasi,
fameliyako buru diranai
nai diyet adierazi,
alkar maitatzen baldin badute
ez ezkontzia galazi,
ez litzake ordun emen sortuko
sortzen dan ainbat desgrazi.

11/ Diruak ere mundu onetan
badaduzka bere lanak,
bizimodu obia eramango du
alkar maitatzen duanak,
gurasuetan kulpik aundina
jeneralian du amak,
biar eztiran arrazoyetan
askotan sartzen diranak,
oker aundiyak ekartzen ditu
kontseju txarra emanak.

12/ Ataun degu aundiyagua
pasatua dan erriya,
nik bezin ondo jakingo dute
asunto orren berriya,
biyotza lertu liteke malkoz
ezpaldin bada arriya,
konsideratzen baldin badegu
da gauza negargarriya,
erejiak baño okerrago
dago jendia jarriya.

13/ Egun batian iru eriyotza,
ori da gauza tristia,
lendabiziko arreba ta ama,
gero illoba gaztia,
ondorenguai etorri zaye
danairi lutoz jaztia,
bolara artan etzun pentsatzen
iñor bizirik uztia,
da orain berak merezi luke
gurutze bati jostia.

14/ Laugarrena ere arrapatu
izan bazun inguruan,
gaxuak ark e juan biarko zun
beste biyaren moduan,
maitiak ai zer larritasuna
ibilliko zun orduan,
bañan aingeru guardakua
anparo zuan onduan,
orra gure Jaunak zer milagruak
egiten ditun munduan.

15/ Orra komeni diran bertsuak
Fermin Imaz-ek atera,
geyago jarri litezke baña
nijua errematera,
desio nuke zabaldutzia
Gipuzkuako partera,
diruz jantziya ez nago baña
ontatik badet aukera,
borondaterik duenik bada
etorri eramatera.

IKUSI: Bertso-papera: "Imprenta "La Económica". Arroca B, bajo. (Amara)". (Garro baserria, Getaria).

Bertso-papera, moldiztegiaren izengabea. (Makazaga-renean, Errenteri).

BERTSO BERRIYAK

FERMIN DONOSTIARRAK JARRIYAK

1/ Gaude milla ta beatzi eun
 oi ta laugarren urtian,
 bertso berriyak atera ditut
 nola komeni baitian,
 iñure batzuentzat
 ondo iruritzen zat
 guztizko borondatian ;
 ai zer pakia utziko dedan
 mundu ontatik juatian (1).

2/ Granorik eztet apartatutzen,
 igualak dirade danak,
 kalera datoz aurrak utzita,
 gañera etxeko lanak,
 neketikan igesi,
 da zeñek egiñazi,
 alperkeriyai emanak,
 kontzientziko karga daduka
 orrela dabillen amak.

(1) Bertso auek "Iparragirre-n bozian" kantatzen dira.

3/ Nor bere aurrari bularra kendu,
bestenari ematen,
ortikan ondo konsideratu
zer naitasuna daukaten,
kalera etorrita
da jantzi ederki ta
eztira geyago juaten,
eztakit nola lotsatze'eztiran,
alperkeriyan da jaten.

4/ Beria dun bular gozua
zertan biar zayo kendu?
orlako lanik ezkenduke eingo
biyotz jatorra bagendu,
naitasuna sekulako
ematen eztiyolako
egiten zayo atzendu,
amak orrekin, ai, irabazi
bañan geyago galtzen du.

5/ Gauza txarra da besteren esku
nor bere aurra uztia;
bire okerra bañan zuzena
obe da erakustia;
bularrik gabekuak
ein lezake alakuak,
denak dutenak ezta,
alare bere besuan askoz
obia luke aztia.

6/ Geyegi dakit aur eder asko
oso gaizki dabilzela,
amaika bider begira egon naiz
errukitutzen naizela,
errespetuan azi
eta lanian ezi
guraso askok bezela,
gaur edo biyar gaxuak gaizki
gertatu eztitezela.

7/ Besteren aurrak besuan eta
kalian pasiatutzen,
nekatu gabe euzki eder da
aize freskuak artutzen,
lujo aundiyan jantzita,
etxe-lanak utzita,
bartzarrak gaizki oitutzen;
beren aurrikan dutenik ere
eztira gogoratutzen.

8/ Alargunduta asko oi dira
aur txikiyakin gelditu,
baita lanian gogor egiti e
aziko baldin baditu,
oyek dirade amak
gogoz sayatze'iranak,
ni egiten naiz arritu,
iruritzen zat badula iñure
alperrak ainbat meritu.

9/ Nor bere amak aurra ezpadu
bere besuan azitzen,
arrazoyakin naitasun danak
aguro ditu utzitzen,
eztute merezi-ta
gauz oyek ikusita
ezkera asko kupitzen;
gaxuak, oyek besteren mende
txit asko dute sufritzen.

10/ Orlako gauzik eztu agintzen
Jaungoikuaren legiak,
mundu onetan eztakit nola
gu ezkeraden obiak;
aur indar gutxikuak
kanpoko etxequak
eta osasun gabiak,
jeneralian ortikan datoz
gure enfermedadiak.

11/ Errukiturik ikusten ditut
nik zeinbat fameli bakar,
azkenerako seniriak e
maitatzen eztutela alkar;
nor artuko mintzat,
biar eztiran itzak
alkarri ematen azkar;
lujuak eta alperkeriyak
gauza onikan eztakar.

12/ Amabigarren bertsuarekin
egin biar det bukatu,
arrazoyian itzak jartzia
ezta izango pekatu,
danentzat degu obe
okerrik egin gabe
bire zuzena topatu;
da beria dun bularrikan ez
aur gaxuari ukatu.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. "La Económica",
Calle de Arroca, letra B, bajo (Amara)". (Jose
Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Errenteri).

"Bertsolariya", n.º 37, 1932'ko Epailla'ren 29'an.
Makinaz idatzitako orria, Juan Iturralde "Juani-
to Kojua", Donosti.

BERTSO BERRIYAK

FERMIN IMAZ DONOSTIARRAK

JARRIYAK

1/ Bizi geranai esplikaziyo
on bat nai det egitia,
komeni bada lagun zadazu,
zeruko Aita maitia,
mundu ontako pekataritzaz
arren akorda zaitia,
gure animik ezta komeni
diabruantzat juatia.

2/ Penitentziya seguru degu
ezpagerade obiak,
nola gabiltzan ederki daki
zeru ta lurren jabiak,
esaten asko ikusten ditut
baliyo eztula fediak,
ai, Satanasen laguntzalliak,
Jaunaren bildur gabiak.

3/ Desanparorik eztu merezi
gure Jesukristo Jaunak,
ordenak zuzen kunpli ditzagun
Berak eman zizkigunak,
ezkaitezela beñere izan
etsai gaiztuan lagunak,
konfesatzera saya gindezke
pekaturikan degunak.

4/ Iru edo lau onak badira
egun bagaude zabarrak,
nola eztitu demoniñuak
orla artuko indarrak?
bildurrik gabe egin ditzagun
guk geren egin biarrak,
sasoi onena jua da gero
alperrik dira negarrak.

5/ Diszipuluak jarriyak dauzka
eta ondo konfesatu,
ayen aurrera gu juatia
ezkaitezela lotsatu,
obia al da diabruaren
odolarekin kutsatu?
edozein moduz libre gerala
eztezagula pentsatu.

6/ Azkar gabiltzan estuasuna
etorri bañan lenago,
ai gure Jesus maitagarriya
arturik Bera anparo,
ori egiten ezpadegu guk
salbaziyorik eztago,
bein infernuan sartu ezkeru
gure animak akabo.

7/ Jesus onari egin ziyoten
judu gaiztuak elduta
bost milla azote eta geyago
pillare bati lotuta,
alare iltzeko konforme zegon
ainbeste kolpe artuta,
gure animik izan etzedin
infernurako galduta.

8/ Jende geyena jarriya dago
elizerara ez juten,
zeregatikan fede santurik
sinistatutzen eztuten,
lengo batian egondua naiz
sermolariyai entzuten,
esaten zuan gurutzian Jesus
nola gugatik il zuten.

- 9/ Kristau maitiak, segi dezagun
relijiyoko bidian,
errezo onak egiaz beti
egunez eta gaubian,
Jesusengana makur gaitian
guztizko umildadian,
Ura eztago ona danari
kastigatzeko idian.
- 10/ Gaizakeriyak utzi ditzagun
guziyok onera bildu,
Salbatzallia kulparik gabe
gure pekatuak il du,
Judas falsoan kalabozora
kontu ezkaiten amildu,
pekatariyak obia degu
Jesusengana umildu.
- 11/ Aitzen ditudan kontu askokin
biotza eiten zat partitu,
kristau fedetsuk baldin bagera
kontzientziya garbitu,
gure animik ezteriyela
etsayen mende arkitu,
Jesus onari erregutuaz,
fakultadiak Ark ditu.

12/ Naigabe-pena izugarriyak
eman zizkaten Jesusi,
ori bakarrik asko eztala
gero gurutzian josi,
kulpik gabeko Salbatzalliai
oinbeste sufritu-azi,
gaiztuak geran partetikan, guk
zer ote degu merezi?

13/ Nere kristauak, erakusten det
zer ein biar dan aurrena,
lendabiziko esamiña on bat
konfesiya urrena,
aber sikiera sendatzen degun
gure anima errena,
eiten ez duna an juango da
infernuaren barrena.

14/ Gure munduko bizimodua
luzia eta laburra,
orra nun da noiz il biar degun
ezta asmatzen samurra,
anima nunbait ibilliko da,
korputzarentzako lurra,
zer estadutan juan biar dedan
nik dadukaten bildurra.

15/ Gure anima eraman nai du
infernun dagon juduak,
bañan uste det errenditzia
pekatariyen buruak,
bere ondora juateko al bada
egin ditzagun moduak,
pobre ta aberats igual gerade,
eztu baliyo diruak.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izen gabe-
koa. (Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxea, Erren-
teri).

Bertso-papera: "Elustondo — Zarauz", Azpeiti-
ko Segundo Aguirrezabalaga-k eman.

Papera au Fermin Imaz il da gerokoa da; ori
oso garbi dago. Beraz ezin jakingo degu zeñek
bertso auek an da emen ikutu ta aldatu ditun;
bearbada Imaz-ek berak ikutuko zitun il baño
len, bearbada beste batek Imaz il da gero. Orre-
gatik lenengo paperatik aldatu ditugu bertsoak
onera, ta bigarrenko ontan toki auek aldatuak
daude:

Izena: GURE ANIMEN GAÑIAN JARRIYAK. (Ez
du Imaz-en izenik ipintzen.)

1/3: onetan bada; 3/1: Esker gaiztorik; 8/1: Je-
sus onari eman zizkoten;

9/1: Jende geyena jarriya dago
gaur elizetara juten
zeregatican fede santuan
oyek sinistutzen duten...

Ta beste iru bertso ditu: 5 ta 6-garrenaren tar-
tean:

Desgraziarik aundiena da
anima kondenatzia
Jesus maitiaz irabaziya
nork bere faltaz galtzia
uste ez dala etorriko da
eriotzako trantzia
konbeni zaigu ditxa eder au
ondo aprobetxatzia.

10 ta 11-garrenaren tartean:

Kendu ditzagun etsai gaiztuen
sariak eta katiak,
gure gañera erori gabe
negargarritzko kaltiak
Jaungoikuaren neurri justuak
iya daudela betiak
ta eztubela baliyo Arri
gezurrak eramatiak.

Ta azkena beste au:

Mundu onetan egiñ biagu
guztiyok penitentziya
beste munduan glori ontasunez
nai badegu abundantziya
gero damurik eztegu izango
lurrian ondo biziya
Jesus maitiak eman deigula
orretarako graziya.

Fermin il zalako susmurra zabaldu omen
zan bazterretan, artean bizirik zala. Jakin
zuanean, mindu egin zan oso. Ta bertso
auek atera zitun.

FERMIN IMAZ-EK BERE BURUARI

1/ Bertsuak jarritzeko
etorri zait era,
noiznai ez da izaten
olako aukera;
il naizela susmurra
didate atera,
gezurra esateko
ori da tankera,
jeiki oitik bera,
gero sukaldera,
andikan kalera,
"bizi al aiz?" galdera,
alaituko gaituzte
triste bagera.

2/ Fermin bertsolariya
oraindik da bizi,
batzuek nai ez dute
ondo ikusi,
projimua amaten
nun dute ikasi?
Jaungoiko Zerukoa
da gure nagusi,
Ari ezin galazi,
nai dunak kontra asi,
duena merezi
dijua lenbizi,
bat denbora baño len
nai dute ill-azi.

3/ Askoren mingañian
ez degu baliyo,
utsa iñori gaitzik
egin baniyo,
animik ez da galdu
ni naizen mediyo,
zergatik daude ola
nere kontrariyo?
ez naute gora iyo,
txit nago seriyo,
ez da misteriyo,
zer erremediyo?
gaizki nai duenari
ajola diyo.

4/ Ni ez bezelakuak
ikuste'itut juaten,
neroni ez dakit zer
pasako zaten,
mundu ontara betiko
jayo ez giñaden,
uste gabeko gaitzak
oi dira izaten,
orra zer daukaten,
lasai degu jaten
dutena ematen,
ari naiz esaten,
bizi naizela oraindik
jakin dezaten.

5/ Egiyak dira danak,
nai dunak aditu,
joan dan Ilbeltzan bostan
nintzan eritu,
eta zazpiyan berriz
lanetik gelditu,
ankak ein zitzaizkidan
guztiyak aunditu,
ni nola mugitu?
nai ta ezin abitu,
miñak emen ditu,
an zan suzeditu,
nayo nun beste batek
izan balitu.

6/ Golpe txar batengatik
ditugu antsiyak,
oyek dira pobrien
irabaziyak;
nunbait ibilli biar
persona biziyak,
aberastasunian
ez gera aziyak,
lanian eziyak
senide guziyak
asko ikusiyak
zer eredentziyak!
Jaunak eman ditzala
pazientziyak.

7/ Tristetutzen gaituzte
ez diran kontuak,
nik e baditut nere
sentimentuak,
anima gaizto asko
bai-dauka munduak,
premiya daukatenak
jartzeko onduak,
ez gaude galduak,
badauzka munduak
zeñek lagunduak,
kristau onraduak,
ala diyo hostgarren
mandamentuak.

8/ Iñor gaizki ikusita
eiten dana poztu,
sentimentu aundirik
ezertan eztu,
olakotzaz obe da
sekulako aztu,
ez dezala besterik
burutikan nastu,
dabilienak estu
naigabia maiz-tu,
ezin bada piztu,
or itzegin justu,
juiziyuan dagonak
ori sinistu.

9/ Modu onetaraño
desiatzen dunak,
infernuan daukazki
bere lagunak,
obe litzake aruntz
baleduzke junak,
projimuari galdu
gabe osasunak,
oyek maitasunak
guk daduzkagunak,
olako personak
ez dirade onak,
ai zer alibiyua
mifnez dagonak!

10/ Ori da inkurriyua
neretzat daukena,
mundutik biali nai
al dan lenena,
neronek e badakit
il biar detena,
bañon zertarako eman
orrenbeste pena?
ori esan dutena
mingarriya dena
federik onena
Jaungoikoarena,
egon eman artian
Arek ordena.

11/ Ezagun da ez dutela
kariñorik bate,
ez dauzkat iritxirik
larogei urte,
orrelakuak badu
etsayakin parte,
bestela nola egin
orrenbeste kalte?
ez nautenak maite
larri dabilzate,
sayatze'ira fuerte
ni ill-azi arte,
lasayak gera bañan
bildurtzen naute.

12/ Gezurra da ein dedala
eliza-legia,
ez naiz gertatu orren
zentzu gabia,
euki zangun al bada
garbiro bidia,
iflorentzat ez izan
txarrera idia
egin nork beria,
utzi maldadia,
ez dunak fedia
baluke obia,
oyek e guretzako
jarriyak dia.

13/ Makiñatxo bat salsa
bada ibilliya,
bakar batek ere ez du
esan egiya,
agiyan izan leike
pusken bat premiya,
danok ez dadukagu
anima garbiya,
infernu goriya
guretzat da iya,
an dago guardiya
diabru aundiya,
ark ere ez du eukiko
mutur argiya.

14/ Orra amabost bertso
gezur gabetanik,
apenas itz bat ere
ala dagonik,
autan ibillitzia
ez det beste penik,
murmuraziyo orrek
nun eiten du onik?
zeñek eman janik
egin gabe lanik?
paperak berenik
saldo nai ditut nik,
iñor etortzen bazait
artu nai dunik.

14/1: Beraz bertso bat falta da. Oyek kantatu zizkiguna (Antonio Pagola, Ernani) etzan amabostgarrengo ortaz oroitzen.

14/11: Emen papera aitatzen da. Inprentatu 'a zabaldu ziran beraz bertso auek. Ez degu paper ori iñon ere jaso.

1920

FERMIN IMAZ ETA TXIRRITAREN

SESIOA

FERMIN IMAZ ETA TXIRRITAREN SESIOA

Fermin Imaz eta Txirrita adiskide izandu ziran, bañan azkenerako sesio gordin hat izan zuten alkarrekin.

Zertaz ta nola asarretu ziran, alkarri jarri zizkioten bertsoak aditzera ematen dute.

Bañan zerbait geyago jakin nayeon Txirritaren illobari galdetu, ta ara iya itzez itz zer erantzun zuan:

“Garai artan Txirritaren kontu zegoan San Tomasetan Teatro-ko bertsolariai deitzea; ari enkargatzen zioten.

Beti, edo askotan beintzat, Fermiñi deitzen zion, beste batzuekin batera.

Urte batean, ordea, garaiz azaldu etzala-ko-edo, etzion deitu.

Imazek, ordea, bazuen deituko ziolako ustea, ta traje berria egiña zuen ango jornalakin pagatzeko asmotan, ta ezin pagaturik gelditu zan.

Easo-kaleko Bar Manuel ortan, txaketa berria artu ta bere asarrean arrika bota zuen esanaz:

—Zerekin pagatu bear det nik orain au?

Ta bertsoak jarri zizkan gure osabari.

Jai-goiz batean Errenterian azaldu zan bertso-paper oyek saltzen.

Baita ere gure osabak ordafiaak jarri. Beti bezela neronek kopiatu nizkan. Etzan bera saltzen ibilli. Besamotzari ta Asteasuar bati eman zizkien saltzeko". (10)

(10) Jose Ramon Erausquin, Gazteluene, Alza.

BERTSO BERRIYAK

1/ Bertsuak jarri ditut
merezi bezela,
ze izan deran jendiak
jakin dezala,
uste nuan Txirrita
gizon fin bat zala,
bi ontza bada orren
arpegiko azala,
danen kabezala
portatzia ala,
dakit gaizki dala
artu duan gala,
uste det ori ainbat
gizon gerala.

2/ Arrazoi aundiyakin
egiten naiz mintza,
nere entendimentuak
ala deritza,
teatrora juateko
eman ziran itza,
bera ori nola dan
bertsolarin giltza,
nik biar nun agintza
nor izan banitza,
egin diran gaitza
aziyo murrutza,
lagunak engañatzen
zertan zabilta?

3/ Nor da ni ez eamateko
esan duan ori?
nere aurrek'aldera
etorri bedi,
errespuestak aguro
emango'izkat ari,
gertatzen ezpagera
burutikan eri,
despreziyo ugari
egin dire neri,
kulpik eztunari,
beren lagunari,
maitasun aundirikan
ezta agiri.

4/ Santo Tomas bezperan
egindako lana
ezta diruarekin
pagatzen dana,
alakuak juntatu
ziran alkargana,
alare neri eman
zabarraren fama,
ez negon erana,
gustatzen zairana,
orrek neregana
ezin eramana,
ondo goguan artu
esan derana.

5/ Jateko egon banitz
orren esperantzan,
nere bizimodua
aspaldi jua zan,
motibo aundi gabe
sartu naute salsan,
aziyo ori egitia
prezisua al zan?
pazientzi artzan,
bera dabil dantzan,
teatro ta plazan,
ustez konfiantzan,
obeto emango zun
portatu bazan.

6/ Ez nuan lasai pasa
San Tomas eguna,
ori da aziyua
egin ziguna,
damu det nik orrekin
izketan jarduna,
diru pixkat sikiera
artu biar nuna,
zenbaiten barruna:
mingaña leguna,
biyotz gogorduna,
probatu deguna,
bajuak altxatzeko
ai zer laguna.

7/ Ori bera dalarik
guziyon burua,
laguna tratatzeko
ezta modua,
teatorako eman
ziran enkargua,
etorritzen zanian
biar zan ordua,
orduko tratua,
ala nun artua,
berak biartua,
gauza ziertua,
kristaba izatia orren
atrebitua.

8/ Orduan ez nebillen
modu ederrian,
goizian bezin gaizki
illunarrian,
orrek baztarrera utzi
laundu biarrian,
orra gure okerra
nundik etorri'an,
eztakit txarrian
zertako jarri'an,
eztauka urrian
lotsik muturrian,
ojala egin ezpalit
itz bat aurrian.

9/ Jornal-bide ederra
etzitzairan irten,
gauba arek ai zer pena
ematen ditena,
personik estimatzen
apenas dakiten,
barren guziyak jarri
ziran irakiten,
ai naiz itzegiten,
eztet utsegiten,
oik zer dabilkiten
zalla da jakiten,
lagunari etzayo
ori egiten.

10/ Enpeñatu gaitezen
arrazoi garbira,
illunpetatik nai det
irten argira,
gustora egingo nun
teatrora jira,
len ere juañ izan naiz
alako tokira,
etziran kupira
pixka bat sikira,
nerekin gaizkira
portatuak dira,
toki onian negon
orren begira.

11/ Uste nuañ Txirritak
niñula maitia,
ezagutzen det orren
borondatia;
ezta basta izaten
itzak ematia,
ori portatu balitz
banuañ partia,
ni penaz betia,
ez naiz kulpantia,
ara ez juatia
neretzat kaltia,
orrela galdutzen da
lagun-artia.

12/ Len ere sobra daki
zer gizon dan Fermin,
befere aziyo txarrik
eztiyot egin,
berak ordun bezela
utzita aldegin,
len baño okerrago
ni gelditu nadin,
orrek eman dit min,
nai baldin ba'u jakin,
zer zuan nerekin
gogor diyot ekin,
orla portatzen al da
lagunarekin?

13/ Beste Astiasur bat
etzana soziyo,
arek eztu umiak
ainbat juiziyo,
teatruan erdiyan
or plantatu zayo,
sillan eseri eta
jarrita seriyo,
ustez zegon piyo
asteko propiyo,
barakin bat geyo,
teloyik ez iyo,
bestela bertsuetan
ekiten diyo.

14/ Orra amalau bertso
beatzi puntuan,
batzuak jarri naya
nauzkan kontuan,
ori portatu bazan
biar zan moduan,
bertsuak jartzen lanik
izango ezkenduan,
bera zan karguan,
bertsolari-tratuan,
ni beintzat galduan
gelditu orduan,
aber Fermin Imaz-ek
arrazoi duan.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (Jose Anjel Sarasola, Olalde, Alzibar, Oyarzun).

Ezkuz idatzia: (Patxi Lazkano, Otsoki, Alza).

BERTSO BERRIAK
TXIRRITAK JARRIAK

1/ Fermin Imaz deitzen dan
binoteru orri
lengo bertsen bueltak
biaizkat jarri,
nai bazenduen jakin
teatroko berri,
zertan etzifian garaiz
nigana etorri?
orain erriz erri
or zabilta larri,
nai duenak neurri
kulpante zerorri,
afana franko eta
talentuz urri.

2/ Ernanin jayua naiz,
an bertan aziya,
Jose Lujambio da
nere graziya,
amabost urterako
lan ontan asiya,
orain Fermin Imazek
eman dit auziya,
badakat sasoya,
gorputza lasaya,
billatutzen saya
nun dan arrazoya,
sekulan enaiz izan
zure etsaya.

3/ San Tomasez esan du
mozkorra etzala,
nik erantzungo diyot
bai ala zala,
izan liteke ona
eta serbitzala,
bañan egiten diyo
arduak itzala,
nere kontra ala
oju eta gala
gaiztua nitzala,
gaizki gabiltzala,
obia da pasa zan
juan zan bezela.

4/ Txarraguak esango
nizkioke baña
kupitu egiten naz
ni alajaña,
uste al du dagoala
kantari bikaña,
egingo lukiela
esanaz nik aña,
badaduka griña,
intentziyo piña,
zuk daukazun miña:
sufritu eziña,
deituko ziñuzteke
kapaz baziña.

5/ Neri lotsagabia
zuk dirazu esan,
inozente dagonak
sinista dezan,
iñoiz jardunak gera
zu eta ni plazan,
beti gelditzen ziñan
bajuaren trazan,
zuk nai zendun ditxan
ni arkitzen nitzan,
ez arrua izan
esponjaren gisan,
zerorrek pentsa zazu
nola zabiltzan.

6/ Bera batian oberik
eztala ifon jayo,
mozkor aldin batian
itzul'in zayo,
gradu altuetara
nai du orrek iyo,
allegatuko dala
enitzake piyo,
itzegin du yayo,
erantzungo zayo,
muturra seriyο,
gezurra dariyo,
salda gatzik gabia
eztu baliyo.

7/ Bertsuakin nai luke
orrek aberastu,
bai ezpalizkiyote
paperak ostu,
kanpuan ibilliyak
badu milla gastu,
ez baldin bazabiltza
konpasian justu,
eran arte estu,
berak aldrebestu,
egon zaitez prestu,
ez kopetik beztu,
muatzen dan monedik
ifork nai eztu.

8/ Goiz tabernan sartuta
atera berandu,
premi aundirik gabe
zenbait eran du,
nekatu gabetandik
nai luke mantendu,
andriak egifietik
ogiya jaten du,
bost aldiz esan du,
entzun nai bazendu,
zurrutak sutzen du,
ark ezin zuzendu,
gaxuak larrutikan
pagatutzen du.

9/ Errenteriyen zifian
kantari azaldu,
nere kontra paperak
zifuen saldu,
beste batzuek berriz
mozkortuta galdu,
aldrebestasunian
oi zefiek igualdu?
memoriya auldu,
izketa moteldu,
neri artzen kargu
lotsarik bai al du?
motibuak badauka
nundikan eldu.

10/ Gazte denboran zifian
zu nere laguna,
errespetokua ta
iztun leguna,
orain elkarri esaten
goatzen zaguna,
au da jolas-bidia
ipiñi deguna,
zu zerala ona
zabaldu da sona,
zedorrek esana,
ongi dakizuna,
amar aur azitzeko
ai zer gizona.

11/ Nik eztiyot emango
juezari parte,
berriz ere jarrita
kantatu fuerte,
bertsuen almazena
ez daukat aparte,
bueltak emango ditut
kapaz naizen arte,
makiña bat kolpe
eman dezu torpe,
arrazoi baluke
aitortuko nuke,
nigana noiz bildu zan
esango nuke.

12/ Ankak zabaldu eta
balantzaka asi,
kopeta illunduta
begiyak itxi,
aurrian zein daguen
ezin du ikusi,
txandarikan eztiyo
iñori nai utzi,
oju eta irrintzi,
iñork ezetz autsi,
orrek nai du bizi
guziyen nagusi,
iñon ametitzerik
eztu merezi.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (Isabel Zuaznabar, Basoaundia, Lasarte).
Eskuz idatzia (Patxi Lazkano, Otsoki, Alza).

BERTSO BERRIYAK

1/ Desprezio bat egin
diraten meriyo,
bi bertsolari gabiltz
oso seriyo,
len lagunak gifianak
orain kontrariyo,
egitan ari danai
luzituko diyo,
onrai amoriyo,
gora nai det iyo,
gero ta egokiyo,
ortan izan piyo,
bestela arrazoyak
eztu baliyo.

2/ Zuzen eraman nai det
asi dan ariya,
Txirrita, badaukazu
orren premiya,
andriak einda jaten
derala ogiya,
gaizto ta inbustero,
gezur kontariya,
zure memoriya
ezta ugariya,
talentu eriya,
korputza nagiya,
errespeto gutxiko
bertsolariya.

3/ Ni sano asko nitzan
San Tomas bezperan,
zurekin kantatzeko
deran euskeran,
ordun e ez nun egin
zuk ainbat jan da eran,
gertatzen nitzalako
alako tankeran,
zuk jarri paperan
gezurak aukeran,
arrazoirik deran
etzaude ezagueran,
denak dakite nola
portatu zeran.

4/ Zenbateraño naizen
nai dezu probatu,
menderatu nai baña
ezin logratu,
zuk gaizki egin eta
nik nola barkatu?
urrenguan gizona
obeto tratatu,
etzizut faltatu,
ain gutxi markatu,
etziñan portatu,
esanak ukatu,
nik orduko jornala
nai det kobratu.

5/ Ondo errepasatu det
nik zure dotriña,
neretzat billatu det
ozo zikiña,
badaukat motibua
sentitzeko diña,
oraindik jua etzaizu
gaztetako griña,
zaude utsegiña,
gaizki itzegiña,
txarrakin jakiña,
ai buru ariña,
zu ari zera jaten
bestek egña.

6/ Fameliyan sartzia
ai zeñen gaizki'an,
zer ikusiya daukazu
nere emaztian?
arro zere burua
lasai ikustian,
bestela ibilli biar
zenduna eskian,
bata ta bestian,
jai eta astian,
estadu tristian,
nik nere ustian,
nunai azalduko naiz
zu ainbestian.

7/ Arrazoi ederrikan
nago ni entzuna,
bire txarretan juan
biar etzuna,
ori da onra-bidia
jarri dirazuna,
sekulan e lotsikan
izan eztezuna,
deran ontasuna
galdu nai nazuna,
ai zer naitasuna
zuk dadukazuna.
nere andriakin al dezu
eginkizuna?

8/ Galduta ibilliya
naizela bertsuak,
Errenteriyen saldu
nitun batzuak,
gertatu izan litezke
alako kasuak,
zuk jarritako oyek
eztaude gozuak,
oso penosuak,
badaki auzuak,
daukaizkit jasuak,
gezurti osuak,
nai dana esan libre
kristau falsuak.

9/ Nere gisa zu ere
tabernan sartuta
ikusi izan zaituzte
txit zabartuta,
patrikaran dituzun
diruak galduta,
maldiziyoka gogor
ezin billatuta,
iya erotuta,
tximak arrotuta,
ezin burututa,
kopetai elduta,
far eiten det askotan
gogoratuta.

10/ Etxerako etzerala
izaten presarik,
orri ez gustatzen nunbait
ardo gozorik,
nik basoka bezela
litroak osorik,
gero ezin emanikan
aurrera pausorik,
ezta bertsolairik
oi bezin lasairik,
etxian sikerik
ein gabe kasorik
zuk bezela eztet pasa
aste osorik.

11/ Itzak legunak eta
biyotza bestera,
gu orren mingaifian
ezer ezkera,
ia nola ibilliya
ote dagon bera,
zapartuta erorita
espalda atera,
orren ezaguera
juna dago bera,
ez etorri onera
lotsak ematera,
zu baño zintzoguak
izandu gera.

12/ Uste al dezu nagola
arrazoi gabia?
itzak emanda, nazu
gaizki lajia,
ikusi ezpanizu
neretzat obia,
ori ondo dakiten
gizonak badia,
ukatzen trebia,
ai Fermin ordia
naiz izan pobria
da gizon noblia,
zu berriz alper danen
diretoria.

13/ Motibo gabe ez naiz
lan ontan asiya,
nun dezu orduko nere
irabaziya?
argatik eman dizu
Ferminnek auziya,
lotsagabia esatia
dezu mereziya,
zuk dezu guziya,
ezin ikusiya
eta maleziya
danen nagusiya,
ajolarik etzaizun
gaizki eziya.

14/ Nola peontzan eta
alatsu argintzan,
lanian gogotsua
etzera izan,
beti zarpa zarrakin
ijituan gisan,
dakitenak ba'ira ni
gaztetan zer nitzan,
nai badute esan,
lana egin noblezan,
naiz bizi pobrezan,
erremeyoik etzan,
sayatuta galanki
irabazten zan.

15/ Parte emango eztezula,
ai, juezetara,
arrazoyik b'al dezu
zuk ezertara?
nai dezunian biyok
juango gera ara,
orrekin eztirazu
sartuko ikara,
kararikan kara,
ondo errepara
zure kantetara
nola'ituzun para,
aber erortzen zeran
arrazoitara.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (J. A. Sarasola, Olalde, Alzibar, Oyartzun).

Eskuz idatzia, Patxi Lazkano, Otsoki, Alza: 6/5 arrotzera burua.

BERTSO BERRIAK

TXIRRITAK JARRIAK

1/ Bigarren txandan Fermiñek kantik
ni mendratzeko pozian,
arrazoi-bide aundirik gabe
dabil tankera motzian,
orren kontuak bostetatik lau
gezurrak izango zian,
orain ordañak artu ditzala
ijituaren bozian.

2/ Ori tabernan sartu ezker
beti aingeru-jazkeran,
arriturikan dago jendia
nola itotzen etzeran,
buru guztiya nastua dauka,
faltatutzen du euskeran,
zuk esan dezun funtziyu ori
etzan San Tomas bezperan.

3/ San Tomasetan seyak aldian
zertan etziñan juntatu?
komentziya jarriko nizun
nai bazenduen kantatu,
nik orduantxe zein juango ziran
biar nuen apuntatu,
ipurdiyari atzegiozu
ez hazerade kontentu.

4/ Elkarri artu biar dizkagun
kargu klasiak ok tia,
Koituenera zertan ez bildu
juan dan urteko tokia,
nekatu gabe gustatzen zaizu
mokadu onak jatia,
kalerik kale nai al zenduen
ni zure billa juatia?

5/ Ernegatuta bezela nago
zu bezelako gizez,
baldarragorik ez det billatu
ni akordatzen naizenez,
ixildu gabe beti or zaude
ona zerala esanez,
juango zifake gustora hazio
ifondik deyik izan ez.

4/2: ok tia = ok dira.

6/ Geyenak gera zaliak baño
kontu izan eranian,
ez al dakizu zer pasatzen dan
deskuiratzen geranian?
nundik-nai deya izango dezu
trebe bazaude lanian,
zenbaitek danak paltsuak ditu
bera mozkortzen danian.

7/ Andriagandik apartatuta
iñoiz ibilli da ori,
erdi-mozkorra zegon batian
berak esan ziran neri,
ardurekin adiskide da,
gorroto gutxi lanari,
agindutzia ez du baliyo
berez alperra danari.

8/ Geren barrenko sentimentuak
esan ditugu itz biñan,
gaita txarrian egon bagiñan
orrentzat ainbat ez giñan,
zenbait naigabe pasatu dezu
kayeko portal izkiñan,
oraiñ e noski etzera egongo
Hotel Maria Cristifian.

9/ Gutxiqeneko bost ofiziyo
badituzu len pasiak,
ongi sayatu izan baziñan
baliyo zuten klasiak,
berriz andikan ez dezu deyik,
gelditu ziran asiak,
argintzan bizi biar badezu
galduko zaitu gosiak.

10/ Lenago ere ibilli zera
oso tankera txarretan,
egunak pasa parrandan eta
lotan ukullu zarretan,
ez dakit nola utzi dituzun
pagatuta edo zorretan,
nik baño obeto jakingo dute
Antigua-alde orretan.

11/ Gañera burlaz jarri dirazu
autsi derala besua,
asko dakiyen batek jartzeko
ai zer nolako berttua,
gizon txarrari edozein gauza
esanda're igualtsua,
ni ez naiz izan zu zeran bezin
alperra eta paltsua.

12/ Mayatza da ta arrantz aundiyak
egiten ditu larrian,
atzian biar luken puska bat
lastimaz dauka aurrian,
nere erdiya ez daki eta
ez da konforme parian,
tontor aundiyak bajatutzeko
ez dabil leku txarrian.

13/ Jendia franko juntatu izan da
bertsolariyen sonara,
diru piska bat irabazteko
franko paraje ona da,
ez al zaizkizu akordatutzen
lenagoko bi jornara?
berrizko deyik nai duenikan
ez mozkortuta juan ara.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. "Aurrerá" Herre-
ra". (Joakin Gamborenea Zabala, Errenteri).

Eskuz idatzia, Patxi Lazkano, Otsoki, Alza.

1/8: Txirritak bertsoak jarri zizkien ijituai: "Es-
plikatzera nua kontuak — ijito jende oyenak...".
Bertso oyek kantatzen diran doñuari esaten zayo
"Ijituaren boza".

BERTSO BERRIYAK

FERMIN IMAZEK TXIRRITARI

JARRIYAK

1/ Txirrita, eztezu eskola ederra
oso ikasi gazterik,
arrazoi gabe ari danari
ezta inola uzterik,
jarri dituzun bertso oriyek
eztute eman gustorik,
zeregatikan eztadukazun
mingain gaiztua besterik.

2/ Gaztetan txarra izan zera ta
okerragua zartzera,
zu baño gizon jatorraguai
zatoz konduta galtzera,
gezurrak brokal aurrera bota,
egiyak utzi atzera,
emakumia izan bazifia
mingain gaiztoko salsera.

3/ Naiz oso zentzu garbieran egon
eta igual da erana,
mundu guziyak badaki ondo
kristau gaiztua zerana,
ibilli zeran toki danetan
petardo txarrak emana,
artzekorikan baldin badezu
etorri zaitez nigana.

4/ Esaten nazu andriagandik
nagola apartatuta,
erreparua ar zazu ondo
zere etxeko karguta,
sasoi onenak jua da gero
al zaude akordatuta,
alper aundi bat zeran meriyoz
ifork etzaitu artuta.

5/ Biyok gertatu izan geranez
teatruan da plazetan,
nere aurrian ikusi zaitut
gaizki esaten bestetan,
amaika bider sartu zerade
fameliyako gauzetan,
orlako lanak ekartzen ditu
gaizki eziyak gaztetan.

6/ Norberak mantxak eduki eta
besteren gauzak neurtutzen,
alakuakin zalla izaten da
pazientziya artutzen,
pakian dagon fameliyari
okasiyua sortutzen,
kontzientzizko kargari asko
eztiyo hegiratutzen.

7/ Baztar guzitan nazka eman du
zabaldu dezun dotriñak,
zu ta ni biyok arrazoyetan
ez gera berdin berdiñak,
biziyatua zaude zurrutak
gañera joku zikiñak,
tripan dauzkazun marka oriyek
nola dituzu egiñak?

8/ San Tomasetan ni bildu nitzan
esan zenduan tokira,
gezurrak eta saltsak jartzeko
eztezu izan kupira,
eta ori're ondo dakiten
testiguak e badira,
oso aztuta al dadukazu
arrats artako partira?

- 9/ Aurrek'aldian dadukatena
biar derala atzian,
Jainkuak daki zenbaterafio
faltatutzen dan itzian,
juntaera bat izandu nuan
orrekin zori gaitzian,
begiyen bistan ikusi ez banu
penik emango etzian.
- 10/ Ajol-gabe bat zerala oso
aspaldi nago igarrita,
juiziyorikan eztunarekin
aritzia alperrita,
astotzako're tratatzen nazu,
Jose Manuel Txirrita,
aundiyenak zein ote gifaake
anketan perrak jarrita?
- 11/ Lotsa aundi gabe esaten nazu
oso naitasun zikiñan,
zenbat naigabe pasatu deran
portal aurreko izkiñan,
beste geyo're gertatzen dira
munduan bizi eziñan,
zuk e obeto biar zenduan
zintzua izan bazifian.

10/4: alperrita = alperrik da.

12/ Utsa litzake bertsuak jartzen
ari baziña egitan,
ez len da orain etzera iristen
bertsolariyen neurritan,
mundu onetan zu zerade bat
zikin guziyen kapitan,
nik ukullutan lo egin badet,
zuk berriz zerri-tokitan.

13/ Despreziyua egin, gezurrak jarri,
gero gañetikan burla,
uzte al dezu jendiak ori
gaur ontzat artuko dula?
jakiñian nago irurogei ta
zazpi urte dituzula,
arritutzen naiz ez lotsatzia
edade ori dezula.

14/ Oraindik eztu iñork zabaldu
modu ortako dotriñik,
ez nun siñisten Txirritakuak
ainbesteraño zekiñik,
eztet proatu nolakua dan
Hotel Maria Kristifiik,
bañan apenas ametitzen det
zu bezelako zikiñik.

- 15/ Oyera juañ biar badu're
bere arropa ta guzi,
zabarragorik nere aurrian
beste bat eztet ikusi,
ostatun igual tripa beteta
pagatu gabe igasi,
errespetua nolakua dan
oraindik ezta ikasi.
- 16/ Jose Manuel Txirritakua
zer zabilzaden gogora,
orain gaiztua baldin bazera
ondu zindezke gerora,
Pazkuakuak egiteko're
badatorkigu denbora,
esamiña ondo eginda juañ
konfesorian ondora.
- 17/ Nik bezelaxe zure esana
askok daduka jasua,
aprobatuko dizut zerala,
nun-nai gezurta osua,
zedorrek kulpak eduki eta
besteri jarri lazua,
nai eztezula ein-aziko'izut
tribunalera pausua.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. "Aurrerá" Herrera".
(Makazagaren moldiztegia arkitua).

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
GABON, AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU.
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso asko.
- 5.—P. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERREN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak
ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).

- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURL
- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Pitarres Larzabal
IRU ZIREN.
- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDESKO GERTAERAK
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
- 22.—Bertsolariak
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).**
- 23.—**AIZKOLABIAK ta beste ipui asko.**
- 24.—Fermin Imaz
BERTSO GUZIAK.



1027909

JB-899

IMPRESO EN ESPAÑA